



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ZUZENBIDE
FAKULTATEA
FACULTAD
DE DERECHO

Ekonomia eta Enpresa Fakultatea
Facultad de Economía y Empresa

Gradu Bikoitza: Enpresaren Administrazio eta
Zuzendaritzako Gradua + Zuzenbideko Gradua
2018-2019 IKASTURTEA

Jarraipen Bereziko Presoen Fitxategien Argi-ilunak

EGILEA: Karla Agirre Aranburu
Zuzendaria: Katixa Etxebarria Estankona



Bilbon, 2019ko otsailaren 18a

AURKIBIDEA

0. LABURDURAK	5
1. SARRERA	6
2. JARRAIPEN BEREZIKO PRESOEN FITXATEGIAK: KONTZEPTUA	8
3. FITXATEGIEN BARRENAK: EDUKIA	10
3.1. Presoen sailkapena	10
3.2. Datu motak eta iturriak	10
3.3. Aplikazio neurriak	11
4. FITXATEGIEN OINARRIAK: ARAUDIA	13
4.1. 1991ko Zirkularra: Fitxategien lehen pausuak	13
4.2. 1991ko Zirkularrak: Fitxategien gogortzea	13
4.3. 12/2011 Instrukzioa: Fitxategiak oraindik ere indarrean	16
5. FITXATEGIEN ARGILUNAK	18
5.1. Dagokien eta duten lege maila	18
5.1.1. <i>Presondegiko legezko tasun printzipioa instrukzioekin asetu nahian</i>	18
5.1.2. <i>Lege erreserbaren zabalkuntza eta salbuespenaren lasterbidea</i>	20
5.1.3. <i>Araudi hierarkiak lekualdatzen</i>	24
5.2. Fitxategien aplikazio eta kontrolaren gabeziak	26
5.2.1. <i>Aplikazioaren erabakia administrazioaren eskutan</i>	26
5.2.2. <i>Indibidualizazio zientifikoa kolektibizatzen</i>	27
5.2.3. <i>Erregimena tratamenduaren gainetik</i>	29
5.2.4. <i>Ezarpen automatikoa duten neurriak</i>	30
5.2.5. <i>Fitxategien aplikazioa aurkaratzeko zirrikituak</i>	32
5.2.6. <i>Datuen trafikoa</i>	34
5.3. Fitxategien bidez presoen eskubideak ezabatzen	36
5.3.1. <i>Kanpo harremanak mantentzeko oztopo lasterketa</i>	36
5.3.2. <i>Irakurketa mugatua, bi liburu soilik</i>	41
5.3.3. <i>Intimitaterik gabeko bizia</i>	42
5.3.4. <i>Osasun laguntzarako oztopoak</i>	44
5.4. Erregimen berriaren sorrera	45
6. ONDORIOAK	48
6.1. Fitxategien kontzeptu orokorrari buruz	48
6.2. Fitxategiek biltzen duten edukiari buruz	48
6.3. Sorreratik gaur egun arte araudian izan duen bilakaerari buruz	48
6.4. JBPFak ezkututzen dituen argi-ilunen inguruan	49

7. ITURRIAK	50
7.1. Bibliografia	50
7.2. Jurisprudentzia	51
7.3. Araudia	53
7.4. Beste iturri batzuk	54

0. LABURDURAK

Laburdura	Esanahia
AAAA	Autore Anitz
AG	Auzitegi Gorena
AGE	Auzitegi Gorenaren Epaia
ANE	Auzitegi Nazionalaren Epaia
art(s).	artikulua(k)
BJLO	Botere Judizialaren Lege Organikoa
DBLO	Datuen Babeserako Lege Organikoa
EE	Espetxe Erregelamendua
EIIN	Espetxe Instituzioen Idazkaritza Nagusia
EIZN	Espetxe Instituzioen Zuzendaritza Nagusia
EK	Espainiar Konstituzioa
ELOO	Espetxe Lege Organiko Orokorra
ETA	Euskadi Ta Askatasuna
FIES	Fitxeros de Internos de Especial Seguimiento
GEEA	Giza Eskubideen Europako Auzitegia
GEEAE	Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Epaia
GEEH	Giza Eskubideen Europako Hitzarmena
GGOKE	Gardentasun eta Gobernu Onaren Kontseiluaren Ebazpena
<i>ibid.</i>	<i>Ibídem</i>
JBPF	Jarraipen Bereziko Presoen Fitxategi
KA	Konstituzio Auzitegia
CAA	Konstituzio Auzitegiaren Autoa
KAE	Konstituzio Auzitegiaren Epaia
lib.	Liburukia
MJANE	Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiaren Epaia
MPA	Madrilgo Probintzia Auzitegia
MPAA	Madrilgo Probintzia Auzitegiaren Autoa
OJ	oinarri juridikoa
<i>op. cit.</i>	<i>opere citato</i>
or.	orria(k)
PKL	Prozedura Kriminaleko Legea
vs.	<i>Versus</i>
zk.	Zenbakia
ZK	Zigor Kodea
ZPAA	Zaragozako Probintzia Auzitegiaren Autoa

1. SARRERA

2019 urteari berri honekin hasiera eman genion: *Black* txartelen auziagatik kondenaturiko 15 kideak Jarraipen Bereziko Presoen Fitxategietan –aurrerantzean, JBPF– barneratuak izan dira¹. Fitxategietan barneratuak izan ziren baita ere Altsasuko gazteak². Euskal herritarrok maiz entzun izan dugu “FIES³” hitza azken hamarkadetan gure historiari hertsiki loturik egon baita, baina zer dira fitxategi berezi hauek? Badakigu presoa kaltetzen duen zeozer iluna dela, baina zeintzuk dira bere iluntasunak ezkututzen dituen benetako itzalak? Badirudi, ezkutuan mantendu nahi izan duten erregimena osatzen dutela fitxategiek, gizarteak benetan zer sortarazten duten jakitea nahi ez balitz bezala.

Testuinguru honetan, JFPFen azterketa kritiko bat burutzea izango da lan honen helburu nagusia, azken finean bere gabeziak azaleratzea. Presoak lau pareten artean bizi duen fitxategien errealitatea legezketasun printzipioarekin eta oinarrizko eskubideekin bateragarriak den hausnartuko dugu. Horretarako, araudiari erreparatuko diogu, jurisprudentziaren norabidea zein den ikertu eta juristek mahai-gaineratu dituzten iritziak aztertu.

Lana lau atal nagusitan egituratua dago. Lehenengo bi zatietan indarrean dagoen araudia eskuan izanda, gaur egun fitxategiak zer diren definitu eta zehaztu egin ditugu, kontzeptu eta edukiaren bidez. Hau da, era objektiboan aurkeztuko dugu figura hau, modu ulergarrian zer den azalduz. Honen helburua, oinarrizko ezaugarriak ondo finkatzea izango da jarraian datorren azterketaren ulermena errazteko.

Horren ostean, fitxategiak sorreratik gaur egun arte arautu dituzten xedapenek izan duten bilakaera aztertuko dugu, nola eman den figura honen eraldaketa denboran zehar. Ibilbide luzea daramate bizkarrean fitxategiek eta pausu horien analisisa burutzea baliagarria izango zaigu legegilea gidatu duen logika gureganatzeko. Horretarako hiru garaitan banatu dugu fitxategien indarraldia eta bakoitzaren ezaugarri nagusiak aurkeztu.

¹ Berriaren zehaztasun gehiago ematen ditu LÓPEZ-FONSECA, ÓSCARrek, “Interior incluye a los 15 presos de las black en un fichero de reclusos de “especial seguimiento”, *El País*, 2019ko urtarrilaren 16a, eskuragarri: https://elpais.com/economia/2019/01/15/actualidad/1547551541_569281.html (Azken bisita: 2019.02.02): “El Ministerio del Interior ha incluido a los 15 condenados por las tarjetas black que tuvieron que ingresar en prisión en el llamado Fichero de Internos de Especial Seguimiento (FIES), creado hace más de 25 años para incrementar el control sobre determinados presos y, de este modo, “garantizar la seguridad” dentro de las cárceles. En concreto, han sido catalogados como FIES-5, uno de los cinco ficheros que existen y que está destinado a lo que se denominan presos de “características especiales”, según detallan fuentes penitenciarias. A este fichero se adscriben a los condenados por delitos “relativos a la corrupción, que hayan generado gran alarma social”, pero también a agresores sexuales, a delincuentes arrepentidos que colaboran con la justicia y a aquellos reclusos que, sin haber sido implicados en actividades terroristas, se han radicalizado en prisión, según detallan fuentes penitenciarias.”

² Aurrerago zehaztasun gehiagorekin aztertuko dugun kasu honen inguruan hitz egiten du ALBIN, DANILOK, “Los tres jóvenes de Altsasu irán a juicio tras casi año y medio de prisión preventiva”, *Público*, 2017ko azaroaren 21a, eskuragarri: <https://www.publico.es/espana/tres-jovenes-altasasu-iran-juicio-ano-medio-prision-preventiva.html> (Azken bisita: 2019.02.03): “Adur Martínez de Alda, Oihan Arnanz y Jokin Unamuno habrán acumulado 17 meses como presos preventivos bajo el excepcional régimen FIES, aplicado habitualmente contra los acusados por delitos de terrorismo.”

³ *Ficheros de Internos de Especial Seguimiento*

Hurrengo epigrafean lanaren mamia bildu dugu, zatirik luzeena izango dena. Bertan fitxategiek dituzten argi-ilunak azaleratzea izango da gure helburua. Hau da, aurrez aztertutako guztiak presoaren egunerokoak dituen eragin errealak neurtu nahi ditugu eta legegilearen hanka-sartzeen irudi orokor bat sortu. Lau ataletan banatu dugu honako atala. Hasteko, legegilearen jardunari erreparatuko diogu eta horren ostean, fitxategien aplikazioa eta kontrola nola burutzen den ikertuko dugu. Hirugarren partean, banan-banan aztertuko ditugu figura honek ikutzen dituen presoaren eskubideetako batzuk: komunikazio, hezkuntza, intimitate eta osasun eskubideak. Azken zatian, aurrez aipaturiko guztiaren konklusio nagusia aurkeztuko dugu, gure ustez fitxategiek ezkututzen dutena zer den argituz.

Lanari bukaera emateko, lan osoan zehar gogoeta egindako gaien inguruko hausnarketa eta ondorio guztiak bildu ditugu. Eta azken orrialdeetan, lanaren eraikuntza prozesuan baliatu ditugun iturri oro zehaztasunez islatu ditugu.

Anitzak izan dira orrialde hauetan zehar sortu dugun lanaren oinarri izan diren iturriak. Doktrinaren aldetik, Euskal Herriko Unibertsitateko liburutegiak eskaintzen dizkigun datu baseak baliatu ditugu artikulu zein liburuek fitxategiei egiten dieten erreferentziak aztertzeko. Hala ere, aipatu beharra dugu azken urteetan gai honen inguruko testu juridiko gehiegirik ez dela idatzi, nahiz eta oraindik ere gure ordenamenduan barneraturik dagoen figura liskartsua izan. Kontuan harturik fitxategiek oinarritzko eskubideen mugatzean duten eragin nabarmena, deigarria iruditu zaigu gai honi buruz idatzia dagoen doktrina eskasa eta zaharkitua. Badirudi juristak ohitu egin direla figura hau gure ordenamenduaren zati izatera eta bere ikerketa zein kritikak ez duela interesik sortzen, ezkutuan mantentzen delarik.

Bestalde, jurisprudentziak fitxategien inguruan emandako ebazpen ezberdinak eskuratzeko, Cendoj bezalako plataformak erabili ditugu, baita ere jurisdikzio organo beraren datu baseak, adibidez Konstituzio Auzitegiarena –aurreantzean, KA– eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiarena –aurreantzean, GEEA–. Fitxategien araudiaren garapen historikoa aztertzerako orduan, zailtasunak izan ditugu hasieran arautzen zituzten zirkular eta instrukzioen testu originalak aurkitzeko. Gainerako legediaren gehiengoa, BOEko orrialde ofizialetik eskuratu dugu eta euskaraturiko hainbat lege, itzulpena burutu duen elkarte beraren web orrialdetik. Bukatzeko, aipaturiko web orrialdeez aparte, hainbat egunkariaren web orrialdeak baliatu ditugu fitxategiekin harremana duten argitaraturiko hainbat berri eskuratzeko eta beste hainbat iturri, hala nola ponentziak edo iturri ez juridikoak. Iturri hauek guztiek eskaini diguten jakintza funtsezkoa izan da lanari sendotasuna eta argia emateko.

2. JARRAIPEN BEREZIKO PRESOEN FITXATEGIAK: KONTZEPTUA

JBPFak presondegiaren eta bertako funtzionario zein presoaren segurtasuna bermatzeko helburuarekin sortutako datu baseak dira. Bertan, potentzialki arriskutsuak izan daitezkeen presoaren inguruko datu zehatzak eta jarraipen berezitik eskuratutako datuak biltzen dira. Horretarako, araudiak neurri edo praktika ezberdinak egikaritzea ahalbidetzen du, datu horien bilketa errazterako bidean⁴.

Gaur egun indarrean dagoen Espetxe Instituzioen Zuzendaritza Nagusiak – aurrerantzean, EIZN– emaniko 12/2011 Instrukzioaren –hemendik aurrera, 12/2011 Instrukzioa– arabera, fitxategiek izaera administratiboa dute. Barneratzen dituzten datuek presoaren egoera penal, prozesal eta espetxeratze egoera islatzen dute. Hortaz, espetxe espediente pertsonalaren luzapen modura uler behar dira JBPFak eta hauen helburua, datuen bilketa seguru eta arina burutzeko tresna izatea da. Hala ere, araudiak ezartzen duenaren arabera, fitxategiek ez dute presoaren kalifikazioa aurrez epaitzen, tratamendurako eskubidea mugatzen edo erregelamenduak ezartzen duenaren kontrako bizi sistema ezberdin bat ezartzen presoarentzat⁵.

12/2011 Instrukzioak ezartzen duenez, fitxategiek bi helburu nagusi dituzte. Lehenik eta behin, herritar guztien oinarrizko ondasun juridikoak babestea eta segurtasun publikoa bermatzea. Bigarrenik, presoaren zein funtzionarioen bizitza eta osotasun fisikoa babesteko baliabide izatea, baita ere Espetxe Zentroen berezko segurtasuna bermatzea⁶.

Doktrinak maiz kontrajarri izan du segurtasuna izatea fitxategien helburu nagusia. Zentzu horretan, autore batzuek adierazi izan dute datuen bilketa presoaren espetxe bizimodua jasangaitzagoa bihurtzeko aitzakia hutsa dela, errepresio erreminta bat gehiago. Baita ere esan da eskuraturiko datuak segurtasunaren mesedetan erabili beharrean, presoaren espetxe-administrazioaren kontroletik at geratzen denean bere pausuak ezagutzeko baliabide gisa erabiliak direla eta Tratamendu Batzordearen erabakiak baldintzatzeko bide ematen dutela⁷.

⁴ Honela adierazten du Espetxe Instituzioen Zuzendaritza Nagusiaren 12/2011 Instrukzioak, 1-2. or.: *“El Fichero de Internos de Especial Seguimiento es una base de datos que fue creada, por la necesidad de disponer de una amplia información sobre determinados grupos de internos de alta peligrosidad -en atención a la gravedad de su historial delictivo o a su trayectoria penitenciaria -, o bien, necesitados de protección especial.”*

⁵Zentzu honetan, honela dio literalki 12/2011 Instrukzioak, 2. or.: *“Tiene carácter administrativo y los datos que almacena están referidos a la situación penal, procesal y penitenciaria. Es, por tanto, una prolongación del expediente/protocolo personal penitenciario, que garantiza y asegura una rápida localización de cualquier dato sin que, en ningún caso, prejuzgue la clasificación de los internos, vede su derecho al tratamiento, ni suponga la fijación de un sistema de vida distinto de aquel que reglamentariamente les venga determinado.”*

⁶ Horrela ezartzen du literalki 12/2011 Instrukzioak, 2. or.: *“En orden al cumplimiento de la función básica de seguridad y, como parte del sistema de Justicia penal, Instituciones Penitenciarias ha de contribuir, en primer lugar, a la protección de los bienes jurídicos esenciales de todos los ciudadanos o seguridad pública. En segundo lugar, la Administración Penitenciaria tiene la función de velar por la vida e integridad de los internos y funcionarios, así como por la seguridad de los propios Centros a fin de lograr la retención y custodia y una convivencia ordenada.”*

⁷ RÍOS MARTÍN, JULIÁN CARLOS, “Los Ficheros de Internos de Especial Seguimiento (FIES). Análisis de la normativa reguladora, fundamentos de su ilegalidad y exclusión del ordenamiento jurídico”, *Cuadernos de Derecho Penitenciario*, 3 zk., 1998, 4. or.: *“estos datos se obtienen para dos fines. Por un lado, para realizar un control posterior -cuando el preso esté libre-, lo que hace ilegal la obtención del dato y la posible intervención porque el objetivo del mismo no es la prevención de incidentes dentro de las cárceles. Por otro lado, la obtención del dato y la actividad*

Gaur egun Espainiar estatuan JBPFe tan barneratuak dauden preso kopuruaren inguruko datuak eskuratzea ez da posible, ez baitira publiko egiten. Beraz, ezinezko zaigu egun figura honen ezarpenak duen eragin zuzenaren irudi orokor bat egitea. Honen harira, 2016ko apirilaren 12an Espetxe Instituzioen Idazkaritza Nagusian - hemendik aurrera, EIIN- aurrean ACAIP⁸ sindikatuak eskera formala burutu zen fitxategietan barneratuak zeuden preso kopuruaren inguruko datuak⁹ publiko egin zitezela¹⁰. Eskaera gaitzetsia izan zen, adieraziz: *“la información solicitada no se publica, por lo que para dar respuesta a tal petición sería necesario dedicar un número ingente de recursos tanto humanos como técnicos, dejando de desarrollar la labor encomendada al Ministerio por Real Decreto (...)”*¹¹. Ezezkoaren aurrean, erreklamazioa ezarri zen Gardentasun eta Gobernu Onaren Kontseiluaren aurrean. Organo honek, 2016ko uztailaren 22an, 196/2016 ebazpenaren bidez, ezarri zuen datu hauek argitaratzeak *“requiere una sencilla operación de búsqueda que no detrae ni excesivo tiempo ni excesivos recursos materiales o humanos y no afecta, en principio, a la seguridad nacional ni pública no precisando de una acción previa de reelaboración”*¹². Hala ere, eskaera onartua izan bazen ere, eskakizun honi erantzunez publikatu beharreko datuen inguruko dokumenturik ez da inoiz kaleratua izan, berriro ere JBPFe n errealitatea ezkutuan mantenduz.

de control puede incidir en la decisión de pronóstico final que emita la Junta de tratamiento y que figura en el expediente de libertad condicional antes de que sea elevado al Juez de Vigilancia.”

⁸ *Agrupación de los Cuerpos de Administración de Instituciones Penitenciaria*

⁹ Zehazki eskaerak ezartzen zuen: *“(...) información sobre el número de internos incluidos en el Fichero de Internos de Especial Seguimeinto (FIES), deglosados por grados de tratamiento y grupo.”* GGOKE 196/2016, uztailaren 22koa, 1. or.

¹⁰ Eskaera hau gardentasun, informazio publikoaren sarbide eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen babespean burutu zen.

¹¹ GGOKE 196/2016, uztailaren 22koa, 1. or.

¹² GGOKE 196/2016, uztailaren 22koa, 5. OJ

3. FITXATEGIEN BARRENAK: EDUKIA

3.1. Presoen sailkapena

Fitxategien aplikazioa jasan dezaketen presoak bost talde ezberdinetan banatzen dira¹³. Sailkapen hau egiteko, presoak buruturiko delitua hartzen da kontutan eta esleitzen zaion taldearen arabera, neurri ezberdinak ezarriko zaizkio fitxategien eraginkortasuna bermatzeko. Geroago aztertuko dugunez, sailkapen honek aldaketa ugari izan ditu denboran zehar, baina gaur egun hauek dira bost taldeak:

- **FIES 1 – Kontrol zuzena:** arriskugarritasun maila altuko presoak.
- **FIES 2 – Narkotrafikatzailleak:** osasun publikorako arriskuak diren presoak.
- **FIES 3 – Talde Armatuak:** talde armatu edo terroristekin harremana duten presoak.
- **FIES 4 – Segurtasun Indarrak eta Presondegiko Funtzionarioak:** bertan langileak izandakoak edo direnak haien segurtasuna arriskuan dagoenean.
- **FIES 5 – Ezaugarri bereziak:** azpitalde ugari ezberdin barneratzen dira.

3.2. Datu motak eta iturriak

JBPFak datu base bat izanda, bertan sartzen den informazio zein den zehaztea funtsezkoa zaigu. Orokorki azaldu dugunez, presoaren egoera penal, prozesal eta espetxeratze egoeraren inguruko datuak barneratzen ditu fitxategiak. Zehazki, hauek dira bertan biltzen diren elementu eta datuak¹⁴:

- Argazkiak
- Filiazioa
- Penal eta prozesalak
- Espetxekoak
- Buruturiko intzidentziak
- Delituzko-jarduerak
- Kanpoaldearekin komunikazioak
- Beste iturri batzuetan jatorria duten datuak

Informazio guzti hauen iturriei dagokionez, 12/2011 Instrukzioak lau taldetan multzokatzen ditu: Espetxeratze Zentroak (espediente, protokolo eta beste informaeak), Idazkaritza Orokorreko beste Unitate batzuk, beste Instituzio batzuk eta publikoaren eskura dauden beste hainbat iturri¹⁵. Adierazgarria da nola instrukzioak “beste” hitza erabiliz araudia interpretatzeko atea parez pare zabalik uzten duen. Hau da, xedapenaren zehaztasun faltak bide ematen dio espetxe-administrazioari kasuan kasuko fitxategien informazio iturriak eta jasotako datu motak zeintzuk diren aukeratzeko.

¹³ Horrela zehazten du 12/2011 Instrukzioak, 3-4. or.

¹⁴ 12/2011 Instrukzioa, 4-5. or.

¹⁵ 12/2011 Instrukzioa, 5. or.

3.3. Aplikazio neurriak

Fitxategiaren edukia bermatzeko, hau da beharrezkoak diren datuak biltzeko, hainbat neurri eta praktika ezberdin ahalbidetzen ditu araudiak. Hala ere, aplikagarri dinen neurriak beti proportzionaltasun eta beharrezkotasun printzipioak betetzen dituztela bermatu behar da¹⁶. Zentzu honetan, neurri hauek hainbat berme bete behar dituztela ezartzen du 12/2011 Instrukzioak: *“toda resolución que acuerde la restricción de derechos fundamentales ha de motivarse de modo individualizado, siendo notificada al interno y al órgano jurisdiccional competente”*¹⁷.

Otsailaren 9ko 190/1996 Errege Dekretuaren bidez indarrean sartu zen Espetxe Erregelamenduren –hemendik aurrera, EE– 65. artikulua¹⁸ ezartzen ditu JBPFak edukiz betetzeko hartu daitezkeen neurriak. Honen arabera, espetxearen segurtasuna bermatzeko neurriak dira: presoek behaketa, hauen zenbaketa, erregistroak, miaketak, konfiskazioak, kontrolak, ziega aldatetak, helmuga espetxe zein ekintzen esleipen egokia eta espetxe edo modulu irteeretan kautela neurriak. Presoaren arriskugarritasun potentzial mailak baldintzatuko du aipaturiko neurrien intentsitate maila¹⁹, baina beti ere beharrezkotasun eta proportzionaltasun printzipioak bete beharko dira, presoaren duintasuna eta oinarrizko eskubideak babestuz (EE 71 art.²⁰).

Talde terrorista edo delinkuentzia antolatuekin harremana duten presoek, segurtasun neurri gehigarriak ezartzen zaizkie fitxategietan sartu izanagatik²¹. Presoaren egunerokoan eragin nabaria duten neurrien artean aipagarriak dira modulu

¹⁶ Honela zehazten du 12/2011 Instrukzioak, 3. or.: *“se ha de justificar la limitación por el fin perseguido con la misma y ha de existir una proporcionalidad entre el sacrificio del ejercicio del derecho y la situación en la que se halla a quien se le impone.”* Hortaz gain, Europar Kontseiluko Ministro Batzardeak estatu kideei eginiko delitugile arriskutsuen inguruko (2014)3 Gomendioan, 2014ko otsailaren 7koa, 3. or.: *“Las medidas de restricción y tratamiento deben guardar proporción con el nivel de riesgo del infractor. Se debe aplicar la medida menos restrictiva compatible con la protección de la sociedad y la reducción del riesgo.”*

¹⁷ 12/2011 Instrukzioa, 4. or.

¹⁸ EE 65. art.: *“1. Las actuaciones encaminadas a garantizar la seguridad interior de los establecimientos consistirán en la observación de los internos, los recuentos de población reclusa, los registros, los cacheos, las requisas, los controles, los cambios de celda, la asignación adecuada de destinos y las actividades y cautelas propias de las salidas tanto fuera de los módulos como fuera del establecimiento. 2. La intensidad de las medidas señaladas en el apartado anterior se ajustará a la potencial peligrosidad de los internos a que se apliquen, particularmente en los supuestos de internos pertenecientes a grupos terroristas, de delincuencia organizada o de peligrosidad extrema, respetándose, en todo caso, los principios a que se refiere el artículo 71. 3. Al fin señalado en el apartado anterior, la Administración penitenciaria podrá constituir grupos especializados de funcionarios.”*

¹⁹ Adibidez, 12/2011 Instrukzioak, 7. or., ezartzen du talde terrorista eta antolaturiko delinkuentziako taldeei aplikatuko zaizkien segurtasun neurrien inguruan: *“Las normas de intervención con internos incluidos en estos grupos se concretan en mayores medidas de precaución o estrategias preventivas que no comportan por sí mismas restricción de derechos, sino la aplicación de los principios de separación, seguridad y ordenada convivencia, conforme a las características criminológicas de estos internos.”*

²⁰ EE 71. art.: *“1. Las medidas de seguridad se regirán por los principios de necesidad y proporcionalidad y se llevarán siempre a cabo con el respeto debido a la dignidad y a los derechos fundamentales, especialmente las que se practiquen directamente sobre las personas. Ante la opción de utilizar medios de igual eficacia, se dará preferencia a los de carácter electrónico. 2. Cuando los funcionarios, con ocasión de cualquiera de las medidas de seguridad enumeradas en los artículos anteriores, detecten alguna anomalía regimental o cualquier hecho o circunstancia indiciario de una posible perturbación de la vida normal del Centro, lo pondrán inmediatamente en conocimiento del Jefe de Servicios, sin perjuicio de que, en su caso, hagan uso de los medios coercitivos a que se refiere el artículo siguiente.”*

²¹ 12/2011 Instrukzioa, 7-8. or.

edo departamentu berezietan egongo direla, non gainerako presoekin duten harremana kontrolatzeko baliabide egokiak bermatuko diren. Horrez aparte, behaketa eta kontrol etengabea ezarriko da presoaren gain burutzen dituen ekintza orotan. Arreta berezia jarriko da egoera hauetan: funtzionario edo espetxeko gainerako profesionalekin dituen harremanak, gainerako presoekin duen harremana, kartzela barruan duen rola eta lidertza gaitasuna, gainerako taldeekin dituen harremanak eta pekulio kontuaren mugimenduak. Arriskugarritasun arrazoiak direla medio jarri beharreko neurri gehigarriak Tratamendu Batzordeak erabakiko ditu eta beharrezkoa bada, Departamendu kanpoan burutzen dituen ekintzak eta komunikazioak mugatuko dira. Bestalde, kontrol zorrotzagoa ezarriko da komunikazioa, osasun edo beste arrazoi batzuegatik preso Departamentutik atera behar denean. Adibidez, preso ospitalera joan behar bada, ez zaio jakinaraziko ze datatan izango den eta ezingo da baimendu mediku zentroekin komunikazio telefonikoak burutzea. Telefono bidezko komunikazioen inguruan, linearen titularraren inguruko dokumentazioa jakinarazi beharko du presoak. Horrez gain, astero gutxienez bi aldiz, presoak erabiltzen dituen kartzelako sail guztien miaketa burutuko da eta egunero presoak erraztasun handiagoarekin kaltetu ditzakeen lekuak. Hau gutxi balitz, aldizkako begi-ikuskapenak burutuko dira erregimen itxian daudenei eta egunero zerbitzuaren Nagusiari bidaliko zaizkio miaketan, jarreraren, beste presoekin izandako harremana edo sortu diren liskarren inguruko informazioa. Aldizkako ziega aldaketak burutuko dira, gehienez bi hilabeteko eta ezin izango dira JBPFetako bi preso ziega berean egon, ezta ere bata bestearen ondoan dauden bi ziegetan. Azkenik, gabeko errondak burutu beharko dira presoaren duintasuna errespetatuz eta lo orduak. Egokiak den maiztasun batekin burutu beharko dira kontutan izanda JBPFen taldea zein den, baina bi ordu baino gutxiagoko tarteetan. Nola burutu den errola eta suertatu diren berriak erregistratu beharko dira helburu horretarako dagoen liburuan²².

²² Fitxategien barne egondako preso baten adierazpenak biltzen dituzte CABRERA CABRERA, PEDRO JOSEk eta RÍOS MARTÍN, JULIÁN CARLOSek, *Mirando el abismo: el régimen cerrado*, Universidad Pontificia Comillas, Madril, 2002, 46. or.: “Este corredor de la muerte esta totalmente automatizado (puertas, cancelas, etc.) y tiene un exceso en sistemas de seguridad; por ejemplo, en un solo patio hay SEIS cámaras de vigilancia, aparte de la garita de vigilancia de los picoletos y de la garita de vigilancia de los carceleros. Las celdas son pequeñas (3 x 3 x 4 m aprox.) y antimotines (todo es de hormigón y hierro, y nada se puede mover del sitio), tienen DOS puertas (una de hierro macizo y la otra de barrotes) y DOS sistemas de rejas en las ventanas (una de rejillas de agujeros pequeños y el otro en forma de ventanillas muy estrechas). Los sistemas de escucha y las cámaras de vigilancia abundan por todos los lados; por ejemplo, cada celda tiene un sistema de escucha (interfono) y enfrente de cada puerta de cada celda hay una cámara de vigilancia enfocando, e igualmente hay cámaras de vigilancia enfocando las ventanas de las celdas. Los muros son bastante altos (6 m aprox.) y están coronados por TRES rollos de alambre con púas (en algunas esquinas hay cuatro o cinco rollos); tenemos acceso a DOS patios, uno es una pequeña jaula (está techado con una red de acero de agujeros muy pequeños) y el otro bastante más grande y sin red por encima, aunque muy vigilado por cámaras, picoletos y carceleros; todo el trato con el personal carcelario (incluso “médicos”) es a través de rejas o de ventanillas muy estrechas; nos esposan para trasladarnos por el interior de la cárcel (para llevarnos a los locutorios de comunicaciones, a la entrada de la cárcel para alguna diligencia o traslado, etc.), esposas que nos ponen a través de la puerta de barrotes de la celda; en esta cárcel nos torturan físicamente muy a menudo.”

4. FITXATEGIEN OINARRIAK: ARAUDIA

JBPFak sortu zirenetik gaur egun arte izan duten arauketa aztertuko dugu jarraian. Esan beharra dago, oso korapilatsua eta aldakorra²³ izan dela araudia eta jurista ugari kritikatu izan dute modu honetan xedatua izan izana²⁴.

4.1. 1991ko Zirkularra: Fitxategien lehen pausuak

Fitxategien aurrekaria 1989. urtean kokatzen da, zehazki EIZNren 1989ko azaroaren 13ko Zirkularra indarrean sartu zenean eratu ziren. Zirkular honen helburua talde armatuetako kideak eta elementu terroristak zituzten presoeri buruzko datuen igorpena burutzea zen. Hala ere, benetan fitxategiak sendotasunez ezarri ziren EIZNren 1991ko martxoaren 6ko Zirkularren bitartez. Araudi berri honen bidez, talde armatuekin harremana zuten presoek gain, gatazkatsuak ziren edo narkotrafikoagatik kartzelaratuak izan ziren presoeri ere ezarri zitzairen kontrol sistema hau, fitxategietan barneratzen ziren taldeak bereziz.

Baina fitxategi hauen sorrera ulertu ahal izateko 1985-1994 urteen bitartean Espainiako presondegi ezberdinetan izandako gertakariak eta bizi zen egoera aztertu beharra dugu, 1989-1991 urteetan larriagotu egin zena²⁵. Denbora tarte honetan presoek erailketak gertatu ziren beste preso batzuen eskutan, baita ere funtzionarioen bahiketak eta istilu kolektiboak. Garai horretako datuek argi adierazten dute gatazka egoera bat bizi zela kartzeletan urte horietan zehar: 55 indarkeriazko erailketa, 101 funtzionarioen bahiketa eta 34 istilu kolektibo²⁶.

4.2. 1991ko Zirkularrak: Fitxategien gogortzea

1991an EIZNren beste hainbat Zirkular sartu ziren indarrean, zeintzuen bidez fitxategien aplikazioa indartu egin zen eta datuen bilketarako neurri sendoagoak ezarri ziren. EIZNren 1991ko maiatzaren 28ko Zirkularren bidez neurri bereziak ezarri ziren presoek kontrol eta zaintza bermatzeko. Eguneroko informeak egiteko betebeharrak ezartzen zen, non egindako miaketan, presoek jarreraren eta suertatutako arazoek datuak barneratuko ziren. EIZNren 1991ko abuztuaren 2ko Zirkularrak arau komunak ezarri zituen lehen graduko presoentzat irailaren 26ko 1/1979 Lege Organikoaren bidez

²³ Iritzi honetakoa da ARRIBAS LÓPEZ, EUGENIO, "La reforma de Reglamento Penitenciario en el laberinto", *Diario La Ley*, 14831 zk., 2010, 9. or.: "La «legalización» reglamentaria del FIES y la intensificación de las medidas de seguridad a adoptar sobre determinados internos ha hecho surgir una situación laberíntica".

²⁴ Horrela adierazten du CERVELLÓ DONDERIS, VICENTA, "Revisión de legalidad penitenciaria en la regulación del régimen cerrado y los FIES", *La Ley Penal*, 72 zk., 2010, 28. or.: "la doctrina y buena parte de la jurisprudencia siempre han denunciando la ilegalidad e improcedencia de su texto por mantener un régimen encubierto de endurecimiento extralegal del primer grado, sin cobertura legal ni la debida autorización judicial, destacando como una de sus mayores críticas la confusión con el primer grado."

²⁵ Burura etor dakiguke Danil Monzónen "Celda 211" pelikulan une liskartsuetan presoldegian bizi zen egoera. Horrela azaltzen du ARRIBAS LÓPEZ, EUGENIOk, "«Celda 211», la legislación penitenciaria y los funcionarios de prisiones", *Diario La Ley*, 20896 zk., 2009

²⁶ Datuak ematen ditu, ARRIBAS LÓPEZ, EUGENIO, "Ficheros de Internos de Especial Seguimiento (FIES) y régimen cerrado", *La Ley Penal*, 72 zk., 2010, 3-4. or.

onarturiko Espetxe Lege Organiko Orokorren –hemendik aurrera, ELOO– 10. artikularen aplikaziorako, zeinak bi fase banatzen zituen. Aztertzen ari garen kontrol sistema aplikatuta zutenek lehen fasean patio orduen murrizketa izango zuten, bi orduz soilik atera zitezkeelarik eta binaka. Gainera, patioa atera aurretik eta ostean ziegaren miaketa burutuko zen. Presoaren jarrera egokia bazen, bigarren fasean kokatuko litzateke, antolaturiko ekintzetan parte hartu ahalko zuelarik eta denbora gehiago pasa gainerako presoekin. Ondoren, EIZNren 1991ko urriaren 2ko Zirkularrak neurri gogorragoak ezarri zituen fitxategien eraginkortasuna bermatzeko, adibidez, eskuburdinak jarrita izateko betebeharra edo telefonoz komunikatzeko debekua.

Fitxategien aplikazioari kontra eginez, eragin nabaria izan zuen lehen ebazpenaren oinarri izan zen 1994ko José Manuel Martínez Rodríguez eta Pedro Vázquez Garcíaeren afera. Bi preso hauek babes errekurtsua aurkeztu zuten Konstituzio Auzitegiaren aurrean JBPFen aplikazioa legez kontrakoa zela adieraziz, oinarrizko hainbat eskubideen urraketa ahalbidetzen baitzuen. Irailaren 15ean KAK 241/1994 Autoaren²⁷ bidez ebatzi zuen EIZNren 1991ko abuztuaren 2ko Zirkularren aplikazio eza presoan oinarrizko hainbat eskubide urratzeagatik²⁸. Ebazpena bi preso hauei bakarrik aplikagarri bazitzairen ere, bidea zabaldu zuen beste hainbat presok Espetxeratuaren Zaintzako Epailearen aurrean eskubideen urraketa argudiatuz Zirkular honen aplikazio eza eskatzeko. Beraz, adierazi dezakegu honako hau izan zela Botere Judizialak fitxategien legezkotasuna zalantzan jarri zuen lehen aldia. Gertaera honi esker, presoek aukera sortu zitzaizkien fitxategien aplikaziorako espetxe-administrazioaren erabakiaren kontra jarduteko bide judiziala baliatuz.

4.3. AGren 2555/2009 epaia: Instrukzioen indargabetzea eta kritika garaia

1995ko otsailaren 28ko EIZNren Zirkularren bidez fitxategiak arautzen zituzten gainerako arauak indargabetu ziren eta bi modalitate berezi ziren: A, departamentu berezientzat eta B, erregimen itxientzat. Baina hurrengo urtean Zirkular hau ere indargabetua geratu zen EIZNren 1996ko abenduaren 16ko 21/1996 Instrukzioaren –hemendik aurrera 21/1996 Instrukzioa– bidez. Instrukzioa baliatuz, EEren xedapen iragankorrak ezartzen zuen administrazio araudia berritzeko eta bateratzeko beharra kunplitzea zen helburua. Araudi honetan lehen aldiz banatu egin ziren FIESaren aplikaziorako bost preso talde motak.

Felipe González buru zelarik, PSOEn gobernuaren legislaturan zehar²⁹, Diputatuen Kongresuan zentzura mozio bat onartua izan zen non adieraten zen JBPFak desegin behar zirela eta egoera honetan zeuden presoan egoera erregelamenduaren bidez arautu behar zela. Ondorioz, otsailaren 9an 190/1996 Errege Dekretuaren bidez EE indarrean ezarri zen, baina honek ez zituen fitxategiak ezabatzen eta espetxe-administrazioaren zirkularren bidez arautuak izaten jarraitu zuten.

²⁷ Auto honen azterketa burutzen du ELÍAS ORTEGA, ANGELek, “Suspensión de la aplicación del régimen FIES; Comentario al auto TC (Sala 2.ª) de 15 septiembre de 1994”, *Diario La Ley*, 12370 zk., 2001.

²⁸ KAA 241/1994, irailaren 15ekoa, OJ bakarra: “Dado que el tratamiento incide directamente en las posibilidades de movimiento y de comunicación de individuos sometidos a penas privativas de libertad, y dado que aquella privación añadida sobre bienes tan esenciales es en sí irreversible, procede en esta concreta disyuntiva acordar la suspensión del tratamiento penitenciario del que son objeto los recurrentes (...)”.

²⁹ PSOEn legislatura 1982-1996 urteen bitartean izan zen.

Bide honetan, oihartzun handia izan zuen “Madres Unidas contra la droga de Madrid” kolektiboak, abokatu talde zein fitxategien errealitatea hurbiletik ezagutzen zuten hainbat pertsonen 2000ko urriaren 5ean Barne Ministerioaren aurrean aurkeztu zuten eskaerak. Eskaeraren helburu nagusia JBPFak deuseztatzea eta hauek arautzen zituzten instrukzioa indargabetzea zen. Kolektiboak argudiatzen zuenez, 21/1996 Instrukzioak presoak ziega barruan 21 orduz giltzapetua egotea ahalbidetzen zuen, bakarrik, beste pertsonekin harremanik izan gabe eta patioan soilik bi pertsona batera egon zitezkeen³⁰. Funtzionarioa ziega aurrean agertzen zen bakoitzean, preso eskua erakutsiz ziega atzeko hormara joan behar zen. Horrez gain, gaueko errondak orduro egiten ziren argia piztuz edo preso linternarekin argituz. Miaketak egunero burutzen ziren baita ere, preso ziegan sartzean eta ateratzean zenean, gutxienez eguneari lau miaketa pertsonal jasaten zituelarik. Gainera, preso bakoitzak soilik bi argitalpen izan zitzakeen ziegan, astean bi deia eta bisita orduak erdira murrizten ziren³¹.

Barne Ministerioak 2001eko uztailaren 21ean kolektiboak eginiko eskaera gaitzetsi zuen. Horregatik irailaren 21ean administrazioarekiko auzi-errekurtso aurkeztu zen Auzitegi Nazionalaren aurrean. Honen ebazpena martxoaren 1ean 1415/2004 epaiarekin heldu zen, zeinak partzialki onartzen zuen errekurtsua, fitxategiek presoaren eskubideak soilik bisita orduen murrizketan urratzen zituela ezarriz. Ebazpen honen aurrean, Auzitegi Gorenaren -hemendik aurrera, AG- aurrean kasazio errekurtsua aurkeztu zen urte bereko urriaren 25ean, errekurtsua onartua izan zelarik martxoaren 17ko 2555/2009 epaiaren bidez, ia bost urte beranduago³². Ebazpenak 21/1996 Instrukzioaren lehengo atala deuseztatzen zuen. Erabaki honek izan zuen garrantziaren harira, gaur egun Espetxe Instituzioen Idazkari Nagusia den Del Puerto Solar Calvok azaltzen duenez, *“el TS determina de forma novedosa tres aspectos fundamentales: considera que la Instrucción 21/1996 regula la restricción de derechos para un colectivo de internos concreto, que con ello, trasciende la finalidad de los reglamentos meramente*

³⁰ Bakardadeak birgizarteratzearen kontra izan ditzakeen eraginaren inguruan hitz egin du RÍOS CORBACHO, JOSÉ MANUELe, “El primer grado penitenciario y los internos FIES”, *Resinta General de Derecho Penal*, 18 zk., 2012, 17. or.: *“(…) el FIES se aúnan determinadas características como pudiera ser la incompatibilidad con la naturaleza gregaria del hombre, el impedimento de la readaptación social porque se desplaza al individuo de la sociedad, además de comportar un sufrimiento cruel, cierta exposición al abatimiento e incluso generan un peligroso cambio de ambientes, sin atender a las distintas idiosincrasias de los delincuentes, haciendo caso omiso de la naturaleza del ser humano, que es social por naturaleza. En definitiva, este sistema muestra una clara desocialización absolutamente incompatible con los postulados constitucionales.”*

³¹ Datuak biltzen ditu SÁNCHEZ ÁLVAREZ, PILARrek, “Régimen FIES: incidencia de la STS de 11.03.2009”, *La revista*, 2009, 1-2. or., eskuragarri: http://www.larevistilla.org/?attachment_id=278 (Azken bisita: 2019.01.02)

³² Horrela dio AGEK 2555/2009, martxoaren 17koa, 2. OJan: *“El apartado primero de la Instrucción 21/1996, de 16 de diciembre, de la Dirección General de Instituciones Penitenciarias, contiene normas de carácter general sobre seguridad, control y prevención de incidentes relativos a internos muy conflictivos y/o inadaptados, que afectan a los derechos y deberes de éstos, de manera que se excede del cometido y finalidad de los denominados «reglamentos administrativos o de organización» para adentrarse en el ámbito reservado a la ley y a sus reglamentos ejecutivos, rodeados estos de unas garantías en su elaboración y requisitos de publicidad de los que aquélla carece, razón por la que la sentencia recurrida conculca los principios recogidos en los preceptos constitucionales invocados al articular ambos motivos de casación”.*

*administrativos, y que, por todo ello, su categoría jurídica no se adecua a la relevancia de su contenido, infringiendo la reserva de ley*³³.

Baina auziak iraun zuen urte luze hauetan zehar instrukzio berria indarrean sartu zen, EIZNren otsailaren 6ko 6/2006 Instrukzioa –aurrerantzean 6/2006 Instrukzioa–. Instrukzioaren helburu nagusia segurtasuna bermatzeko zentro penitentiarioetan jarraitu beharreko jarduera protokoloa zehaztea zen. 6/2006 Instrukzioak 21/1996 Instrukzioa indargabetzen zuen baina hein handian 21/1996 Instrukzioaren ezarpenen kopia hutsa zen, indargabetua izandako lehen ataleko xedapenak erreproduzitu. Hala ere, 6/2006 Instrukzioak aldaketa nabarmenak ere ekarri zituen. Fitxategiak berregituratu zituen ezaugarri kriminologiko berriak barneratzeko, adibidez fanatismo erlijioso, arrazismoa eta sexu askatasunaren kontrako delitu oso larriak xedatu zituen fitxategien barne sartuak izan zitezten. Esan beharra dago instrukzio honetan “*régimen especial*” hitza erabiltzen zela fitxategien barne zeuden taldeei erreferentzia egiteko, horrek ulertarazten zuelarik beste erregimen berezi bat sortzen zela lege edo erregelamendu mailako arau bat ez zen barne arau baten bitartez³⁴.

4.3. 12/2011 Instrukzioa: Fitxategiak oraindik ere indarrean

Aurrerapauso bat emanez, 2001eko martxoaren 25ean, 419/2011 Errege Dekretuaren bidez, EEan hainbat aldaketa barneratu ziren. Berrikuntza horien artean, JBPFei erregelamendu mailako babesa eman nahi izan zien legegileak eta 1996ko Instrukzioa guztiz erreformatu. Horretarako, EEak 6. artikularen 4. puntua barneratu zuen zeinak ezartzen du: “*La Administración penitenciaria podrá establecer ficheros de internos que tengan como finalidad garantizar la seguridad y el buen orden del establecimiento, así como la integridad de los internos. En ningún caso la inclusión en dicho fichero determinará por sí misma un régimen de vida distinto de aquél que reglamentariamente corresponda.*” Baina, legegilearen jarduna hankamotz geratu zen, lege bidez fitxategiak arautu beharrean, erregelamendua baliaturik burutu baitzuen arauketa. Horrez gain, araudiak barneratzen duen zehaztasun falta nabaria da, adibidez “*potencial peligrosidad*”, “*extrema, intensidad*” edo “*extrema peligrosidad*” kontzeptuak barneratuz. Egoera honek interpretazio zabala burutzeko aukera ematen dio Administrazioari, eskubideen muga neurriak nola aplikatu erabakitzeko³⁵.

Hamar urte beranduago, EIZNren 17/2011 Instrukzioa indarrean sartu zen azaroaren 8an, baina urte bereko uztailaren 29an EIZNren 12/2011 Instrukzioa –hemendik aurrera 12/2011 Instrukzioa– indarrean sartu zen. Azken Instrukzioak JBPFak EE bidez arautu behar zirela ezartzen zuen, espetxe eremuko lege erreserba indartuz.

³³ DEL PUERTO SOLAR CALVO, MARÍA, “El acceso al expediente penitenciario. El necesario tránsito de la forma al fondo; A propósito de la nueva normativa en protección de datos”, *Diario La Ley*, 9160 zk., 2018, 6. or.

³⁴ Honela adierazten du ARRIBAS LÓPEZ, EUGENIOk, “Ficheros de Internos de Especial Seguimiento (FIES) y régimen cerrado”, *op. cit.*, 8. or.: “*La denominación de ese colectivo como «RÉGIMEN ESPECIAL», desde nuestro punto de vista, fue francamente desafortunada, habiendo dado un arma importantísima a los detractores del FIES para empezar a hilvanar sus críticas, por la sencilla razón de que, ni más ni menos, se estaba dando pie a entender que, por la vía de normas internas no legales ni reglamentarias, se había instaurado, al lado del abierto, ordinario y cerrado, un nuevo régimen penitenciario especialmente duro y contundente. Y ello sin contar que, en ocasiones, el significante es capaz de alterar de forma importante el significado.*”

³⁵ CERVELLÓ DONDERIS, VICENTA, *Derecho penitenciario*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2016, 213. or.

Hala ere, hainbat autoreren iritziz, lege babes hau ez zen nahikoa, baina bai legezkotasun printzipioa betetzeko bidean aurrerapauso bat³⁶. Horrez gain, EIIInren uztailaren 11ko 8/2014ko Instrukzioak³⁷ fitxategien inguruko hainbat xedapen egiten zituen espetxeetan eman daitezkeen islamiar erradikalizazioarekin loturik³⁸. Hortaz, gaur egun 12/2011 Instrukzioa da JBPFak xedatzen dituen arau nagusia, honen ondoan kokatzen delarik EEa. Hala ere, gaiaren inguruan ebazpen kopuru oparoa egonik, epaitegi zein auzitegien xedapenek fitxategien aplikazioa hein handian baldintzatzen dute.

³⁶ Iritzi honetakoa, CERVELLÓ DONDERIS, VICENTA, "Revisión de legalidad penitenciaria en la regulación del régimen cerrado y los FIES", *op. cit.*, 1. or.

³⁷ "Nuevo Programa para la prevención de la radicalización en los establecimientos penitenciarios" izendatua izan zen 8/2014 Instrukzioa.

³⁸ 2015eko otsailaren 10ean Espetxe Instituzioen Idazkaritza Nagusiaren 8/2014 Instrukzio eta 4/2014 Zerbitzu Aginduari buruz egindako Berrikuspenak, 8/2014 Instrukzioa osatu zuen. Dokumentu honetan, soilik JBPFen inguruko xedapenak argitzen dira, zehazki islamiar erradikalizazio taldeen arabera (A, B, C) preso fitxategietan sartuko den edo ez ezartzen da.

5. FITXATEGIEN ARGILUNAK

Behin ondo zehaztuta zein den fitxategi hauen izaera eta nola arautzen diren, historian zehar fitxategien inguruan sortu diren zalantzak eta azaleratu diren gabeziak aztertuko ditugu. Hortaz, helburu nagusia gaur egun indarrean jarraitzen duen instituzioa honen argi-ilunak aztertzea izango da.

5.1. Dagokien eta duten lege maila

Orain arte aztertutakoa kontutan hartuta, argi geratzen da ez dagoela legezko babes nahikorik JBPFak indarrean jarrai dezaketen. Izan ere, hori izan da doktrinak eta jurisprudenziak buruturiko kritika nagusietako bat. Azter ditzagun baieztapen hau babesten duten oinarriak.

5.1.1. Presondegiko legezkoatasun printzipioa instrukzioekin asetu nahian

Presondegiko legezkoatasun printzipioaren erreferentzia nagusia 1978ko Espainiako Konstituzioaren –hemendik aurrera EK– 25.2. artikuluan aurki dezakegu: “Presondegira kondenatuak, hura betetzen ari baldin bada, kapitulu honetako oinarritzko eskubideez goza dezake, baina ez espreski huts kondenatorio arazoagatik, zigor zentzu eta presondegiko legeagatik mugaturik daudenak”³⁹. Bestalde, botere publiko guztiak EKak onarturiko eskubide eta askatasunei lotetsiak daudela ezartzen da (EK 53.1. art.⁴⁰). Printzipioaren konfiguratuak 1950eko azaroaren 4ko Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 8.2. artikulua⁴¹ eta GEEAk Silver eta beste batzuk vs. Estatu Batuak kasuan⁴² emandako ebazpenak. Azken honen arabera, eskubideak mugatzen dituen edozein xedapen lege bidez onartua izan behar da, ez beste araudi maila bat baliaturik⁴³.

³⁹ EK 25.2. art.: “Askatasun bazterte zigorrek eta seguritate neurriek birheziketa eta gizartean bersartzera joko dute eta ez dira izango lan bortxatuak. Presondegira kondenatuak, hura betetzen ari baldin bada, kapitulu honetako oinarritzko eskubideez goza dezake, baina ez espreski huts kondenatorio arazoagatik, zigor zentzu eta presondegiko legeagatik mugaturik daudenak. Edonola ere, lan ordaindu batetara eskubidea izango du, eta baita giza asegurantzari dagozkion etekinetera ere, kultura sarbidera eta bere nortasun osoko hazkundera.”

⁴⁰ EK 53.1. art.: “Aurreko Tituluko bigarren kapituluaren aitorturiko eskubide eta askatasunek botere publiko guztiak behartzen dituzte. Bakar bakarrik, legez, kasu guztietan haren oinarritzko funtsa errespetatu beharrez, arau daiteke haien eskubide eta askatasun iharduera, berak 161. artikuluan, 1 a) alde aurretik pentsaturiko arauz babestua izanik.”

⁴¹ GEEH 8.2. art.: “No podrá haber injerencia de la autoridad pública en el ejercicio de este derecho sino en tanto en cuanto esta injerencia esté prevista por la ley y constituya una medida que, en una sociedad democrática, sea necesaria para la seguridad nacional, la seguridad pública, el bienestar económico del país, la defensa del orden y la prevención de las infracciones penales, la protección de la salud o de la moral, o la protección de los derechos y las libertades de los demás.” Horrela ezarri du KAK 175/1997 epaian, urriaren 27koa, 3. OJan: “La exigencia de que la medida esté contemplada en una ley se deriva no sólo de los arts. 25.2 y 53.1 de la C.E., sino además del art. 8.2 del Convenio Europeo de Derechos Humanos, que requiere que cualquier injerencia en el ejercicio del derecho al respeto a la correspondencia esté prevista por la ley.”

⁴² GEEAE 5947/72, Silver eta beste batzuk vs. Estatu Batuak, 1983ko martxoaren 25ekoa.

⁴³ Horrela ezarri du martxoaren 17ko 2555/2009 AGEK, 10. OJan: “Tribunal de Derechos Humanos, al analizar el artículo 8 de la Convención Europea de Derechos Humanos y Libertades Fundamentales, ha declarado, entre otras, en la sentencia del “caso Silver” que las limitaciones

Aurrekoa satuz, EKaren 81.1. artikulua⁴⁴ ezartzen du askatasun publiko eta oinarrizko eskubideak lege organiko bidez arautuak izango direla. Hortaz, kartzela zigorraren betearazpena xedatzen duten arauak lege organiko maila izan behar dute, askatasun eskubidea mugatzen baitute.

Modu berean arautzen du presondegiko legezketasun printzipioa azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren bidez onartutako Zigor kodeak –hemendik aurrera, ZK– 36. artikuluan: “Espetxealdi-zigorra bete eta kondena laburtzea dakarten espetxe-onurak ezarri, legeetan eta kode honetan xedatutakoaren arabera bete eta ezarriko dira”⁴⁵. Beste behin ezartzen da kartzela zigorraren betearazpena Legearen eta ZKren araudien arabera xedatuko dela. Honekin batera, ZKren 3.2. artikulua⁴⁶ dio zigorrak eta segurtasun neurriak lege edo erregelamenduek ezartzen duten moduan soilik exekutatu ahalko direla. Modu berean, espetxe araudi espezifikoan, irailaren 26ko 1/1979 Espetxeen Lege Organiko Orokorren –hemendik aurrera ELOO– 2. artikuluan zehazki ezartzen da: “*La actividad penitenciaria se desarrollará con las garantías y dentro de los límites establecidos por la Ley, los reglamentos y las sentencias judiciales*”. Eta EEren 3.1. artikulua⁴⁷ arabera, jarduera Konstituzioak eta Legeak ezartzen dituen berme eta mugen barruan garatu beharko da. Zentzu berean, EEk ezartzen du 2. artikuluan⁴⁸ presoen eskubideak soilik mugatuak izan ahalko direla legeak ezartzen duen moduan.

Printzipioaren konfiguraziotik ondorioztatu dezakegu legegileak ziurtatu nahi izan duela espetxe zigorraren exekuzioa legezketasun bermeekin bat egitea, arreta berezia jarri duelarik presoaren eskubideak babesterako orduan. Hala ere, praktikan xedapen hauek exekuzio fasean modu arinago batean interpretatzen dira legegintza fasean baino⁴⁹. Araudiak atea zabaltzen du erregelamendu bidez espetxe araudia xedatzeko, salbu eta lege erreserba bidez ezarri behar badira. Alabaina, erregelamenduek legeak ezarritakoa garatu behar dute, ezin dute eskubideak *ex novo* arautu, lege batek hori

establecidas en este precepto han de hacerse mediante leyes y no a través de circulares o instrucciones, que no son fuente de derecho y no están sujetas a las garantías de publicidad de las normas, debiendo ser, en cualquier caso, las limitaciones de derechos motivadas, proporcionadas, individualizadas y por tiempo determinado, pero la Instrucción impugnada establece medidas de carácter general y las restricciones impuestas van más allá de lo necesario para que las prisiones funcionen cotidianamente.”

⁴⁴ EK 81.1. art.: “Askatasun publiko eta oinarrizko eskubideen aurreramenduari dagozkionak, Autonomi Estatutuak onartu eta hautapen orokor erregimena Konstituzioan aurre ikusitako besteak dira lege organikoak.”

⁴⁵ ZK 36. art.: “Espetxealdi-zigorrak sei hilabete iraungo du gutxienez, eta gehienez hogeitun urte, salbu eta kode honen beste manu batzuek, salbuespen gisa, besterik xedatzen dutenean. Espetxealdi-zigorra bete eta kondena laburtzea dakarten espetxe-onurak ezarri, legeetan eta kode honetan xedatutakoaren arabera bete eta ezarriko dira.”

⁴⁶ ZK 3.2. art.: “Halaber, ezin izango da zigorrak ez segurtasun-neurririk betearazi, legeak eta legea garatzen duten erregelamenduek ezarri moduan eta lege eta araudi horien testuan ezarritako inguruabarrekin edo ezaugarriekin ez bada. Zigorraren edo segurtasun-neurriaren betearazpena auzitegi eta epaile eskudunen kontrolpean egingo da.”

⁴⁷ EE 3.1. art.: “*El presente Reglamento de desarrollo de la Ley Orgánica 1/1979, de 26 de septiembre, General Penitenciaria, regula la ejecución de las penas y medidas de seguridad privativas de libertad, así como el régimen de los detenidos a disposición judicial y de los presos preventivos, siendo de aplicación directa en todo el territorio del Estado.*”

⁴⁸ EE 2. art.: “*La actividad penitenciaria tiene como fin primordial la reeducación y reinserción social de los sentenciados a penas y medidas de seguridad privativas de libertad, así como la retención y custodia de los detenidos, presos y penados y la asistencia social de los internos, liberados y de sus familiares.*”

⁴⁹ Oso argi uzten du, CERVELLÓ DONDERIS, VICENTAK, “Revisión de legalidad penitenciaria en la regulación del régimen cerrado y los FIES”, *op. cit.*, 3. or.

babesten ez baldin badu⁵⁰. Bestalde, legegileak presoaren eskubide murrizketa gehiegizkoa ekidin nahi du, soilik kartzela zigorrak berak ezarri dizkionak jasan ditzan. Horrez gain, zigorraren exekuzioa nola burutuko den xedatu nahi du legegileak, administrazioak erabaki judiziala hutsaldu ez dezan. Baita ere, araudi honen helburua da eskubide murrizketa orok lege babesa izatea segurtasun juridikoaren mesedetan⁵¹.

Hortaz, JBPFa datu base hutsa balitz eta beharrezkoak diren datuak lortzeko presoari neurri gehigarriak aplikatu ez balizkio, aztertutakoaren arabera lege mailaren urraketa ez litzateke emango. Baina jada aipatu dugunez, fitxategi aplikazioaren ondorioz, presoari bere oinarrizko eskubideekin eta askatasun egoerarekin talka egingo duten neurriak ezartzen zaizkio. Egoera horretan, araudiak zehazten du eskubide hauek mugatzen dituzten xedapenak lege zein lege organiko bidez arautuak izan behar direla. Baina fitxategien arauketa ez da inoiz lege edo lege organiko bidez burutu, betidanik zirkularrak, instrukzioak eta erregelamenduak izan dira figura hau xedatzeko erabilitako araudia⁵². Beraz, zentzun honetan esan liteke legezketasun printzipioaren urraketa fitxategien sorreratik eman dela. Hala ere, agerikoa da urteak aurrera joan ahala babes juridiko handiagoa eman nahi izan zaiola arau maila altuagoen bidez, zirkularretatik instrukzioetara salto eginez eta instrukzioetatik erregelamenduetara⁵³. Baina kontutan hartuta fitxategien aplikazioak presoaren egunerokoan duen eragina bortitza, gaur egun JBPFen arauketan legezketasun printzipioa behar bezala betetzen ez dela baieztatu dezakegu⁵⁴.

5.1.2. Lege erreserbaren zabalkuntza eta salbuespenaren lasterbidea

Aurrez aipaturiko EKren 81.1. artikulua⁵⁵ ezartzen du askatasun publikoen eta oinarrizko eskubideen araudiaren garapenak lege erreserba duela; beraz, lege mailako arauen bidez xedatzeko betebeharra dago. Lege erreserba honen barne dago espetxe araudia, horregatik ELOOren bidez arautua izan da Konstituzioak ezartzen duenari

⁵⁰ Honela adierazten du, MAPELLI CAFFARENA, BORJAK, *Las consecuencias jurídicas del delito*, Civitas, Iruña, 2005, 35. or.

⁵¹ CERVELLÓ DONDERIS, VICENTA, "Revisión de legalidad penitenciaria en la regulación del régimen cerrado y los FIES", *op. cit.*, 3. or.

⁵² Horrela babesten du MAPELLI CAFFARENA, BORJAK, *op. cit.*, 354. or.: "era muy difícil de padecer con el principio de legalidad el diseño «por circulares» de todo un dispositivo de seguridad que afecta gravemente a derechos como la intimidad, la libertad o el desarrollo integral de la personalidad".

⁵³ Aipatu beharra dugu 2005eko ekainean buruturiko Espetxe Legearen Aurreproiektuak gaur egun indarrean dagoen EEren 6. artikulua konfigurazio berria ezartzen duena. Horrela konfiguratuko luke Espetxe Legeak berriak artikulua hau: "1. La Administración penitenciaria podrá crear ficheros con datos que recoja en el ejercicio de sus funciones. Estos ficheros se registrarán, incluido el régimen de cesión de datos, por las previsiones contenidas en la legislación de protección de datos y en el Reglamento penitenciario. 2. La inclusión de un interno en alguno de los ficheros penitenciarios no supondrá por sí misma la aplicación de medidas regimenterales que no le correspondan por su clasificación penitenciaria." Ondorioztatu dezakegu legegilearen fitxategien lege mailako babesaren norabidea jorratu nahi duela artikulua honen bidez.

⁵⁴ Argudio hau berretzen dute CABRERA CABRERA, PEDRO JOSEK eta RÍOS MARTÍN, JULIÁN CARLOSEK, *op. cit.*, 53. or.: "Esta situación vulnera abiertamente el principio de legalidad, que en materia penal es el principio rector y la garantía de los ciudadanos (STC 78/1984). Esta vulneración del principio de legalidad en la fase de ejecución se concreta en la violación de varios preceptos, de la Constitución, del Código penal, y de la Ley Orgánica General Penitenciaria".

⁵⁵ EK 81.1. art.: "Askatasun publiko eta oinarrizko eskubideen aurreramenari dagozkionak, Autonomi Estatutuak onartu eta hautapen orokor erregimena Konstituzioan aurre ikusitako besteak dira lege organikoak".

jarraikiz. Askatasuna EKko lehen kapituluko lehen tituluan oinarritzko eskubide modura konfiguratu da, beraz, espetxeratzeak zuzenean eskubide honekin talka egiten duenez, lege organiko bidez arautua izan behar du. Hala ere, espetxearen oinarritzko araudiaren azterketatik ez da ondo ondorioztatzen zein eduki arautu behar den lege bidez edo zein xedatu daitekeen erregelamenduak erabiliz. Salbuespen modura, argi geratzen da oinarritzko eskubideen egikaritza mugatzen duten arauak lege mailako babesa izan behar dutela. Beraz, lege erreserba duten espetxe gaien barne daude, lehenik eta behin zigortuaren klasifikazioa; honen ondorio baitira ekintzen mugapena, behaketa neurriak eta barne erregimena, askatasun eskubidearekin (EK 17.1. art.)⁵⁶ mugatze zuzena eginez. Bigarrenik, irteera baimenak, komunikazioak eta bisitak berreziketa eta birgizarteratze printzipioarekin (EK 25.2 art.)⁵⁷ bat eginez. Eta azkenik, diziplina erregimenaren ondorioz ezartzen diren jardueren mugatzeak, segurtasun juridikoaren printzipioa betez (EK 25.1. art.)⁵⁸.

Aipatu berri ditugun gai guztiek lotura zuzena dute JBPFeekin. Lehenengoari dagokionez, nahiz eta 12/2011 Instrukzioak kontrakoa adierazi, presoaren fitxategian barneratzeak bere kalifikazioan eragin nabarmena dauka. Azken finean, presoari ezartzen zaizkion neurri askoren jatorria da datu base honen parte izatea. Bigarrenik, praktikan ikusi da presoaren fitxategian barneratuta egoteak espetxe-administrazioak berarekiko duen trataeran eragina duela, adibidez, irteera baimenen onarpena baldintzatzen du⁵⁹. Azkenik, JBPFeetan egoteak espetxe-administrazioari bide ematen dio presoaren jarduera zorrotasun handiarekin mugatzeko, hala nola ziegan ordu luzez egotea edo patiora bakarrik ateratzeko betebeharra ezartzea. Baina dakigunez, fitxategiak ez daude lege edo lege organiko bidez araututa. Arau maila hori erabili beharko litzateke fitxategiek burutzen duten presoaren eskubideen mugapena lege erreserba printzipioa betez egin zedin.

Bestalde, espetxe-administratzailearen eta presoaren artean dagoen lotura bereziko harremanaren ondorioz, legegileak espetxe gaietan lege erreserbaren inguruko hainbat salbuespen onartu ditu. Harreman honen oinarrian elkarren artean duten eskubide eta betebeharren lotura dago. Lotura honek aukera ematen du hainbat eskumen erregelamendu bidez arautuak izan daitezen⁶⁰. KAren uztailaren 28ko

⁵⁶ EK 17. art.: “Edozein pertsonak askatasun eta seguritate eskubidea du. Inori ez zaio askatasunik galeraziko, artikuluko hontan agintzen dena betetzen ez baldin bada eta beste jazoeretan legeak adierazten duen eran.”

⁵⁷ EK 25.2. art.: “Askatasun baztertzeko zigorrak eta seguritate neurriak birreziketa eta gizartearen bersartzera joko dute eta ez dira izango lan bortxatuak. Presondegira kondenatuak, hura betetzen ari baldin bada, kapitulu honetako oinarritzko eskubideez goza dezake, baina ez espreski huts kondenatorio arazoagatik, zigor zentzu eta presondegiko legeagatik mugaturik daudenak. Edonola ere, lan ordaindu batetara eskubidea izango du, eta baita giza asegurantzari dagozkion etekinetera ere, kultura sarbidera eta bere nortasun osoko hazkundera.”

⁵⁸ EK 25.1. art.: “Ezin da inor kondenatu edo zigortua izan ekintza edo usteengatik berak egiteko unean delitu, huts edo administral arau hausteak izan ez badira, une hartan zutik dirauen legearen arabera.”

⁵⁹ Zentzu honetan, GONZÁLEZ COLLANTES, TÀLIAK ezartzen du, “Los ficheros de internos de especial seguimiento: un ejemplo de la penetración de la cultura de emergencia y la excepcionalidad en el ámbito penitenciario”, *I Congreso Internacional de Seguridad, Justicia y Sistema Penal*, Valentzia 2014, 8. or., eskuragarri: <https://congresos.adeituv.es/seguridad/ponencia.es.html?mes=1&ordpon=7> (Azken bisita: 2018.12.06): “Esto se traduce, por otro lado, en una limitación y restricción de los derechos reconocidos legalmente y se crea una situación de desigualdad respecto al resto de internos que tienen la misma clasificación, a parte de que tener la consideración de interno FIES repercute en las progresiones y regresiones en grado, así como también en la concesión de permisos, etc.”

⁶⁰ Argi ikusten du, CERVELLÓ DONDERIS, VICENTAK, “Revisión de legalidad penitenciaria en la regulación del régimen cerrado y los FIES”, *op. cit.*, 4. or

175/2000 epaiak horrela definitu zuen lotura bereziko harreman hau: *“la naturaleza especial de aquella relación de especial sujeción y la peculiaridad del marco normativo constitucional derivado del art. 25.2 CE supone que entre la Administración Penitenciaria y el recluso se establezcan un conjunto de derechos y deberes recíprocos, que deben ser entendidos en un sentido reductivo y, a la vez, compatible con el valor preferente de los derechos fundamentales”*⁶¹.

Administrazioaren ahalmen erregelamendugilearen inguruan AGk apirilaren 11ko 3701/1981 epaian ebatzi zuen *“la potestad reglamentaria de la Administración opera con mayor o menor autonomía según se ejerza ad intra, es decir, con fines puramente autoorganizativos o en el marco de relaciones de sujeción especial, o ad extra, lo que sucede cuando regula abstractamente derechos y obligaciones de los ciudadanos en situación de sujeción general”*⁶². Ebazpen honetan oinarrituz, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiaren ekainaren 24ko 10526/2013 epaiak ebatzi zuen 12/2011 Instrukzioa administrazio edo antolakuntza erregelamendu bat dela eta harreman bereziak Administrazioaren xedapen-boterea handiagotzen duela⁶³. Gainera, erregelamenduek soilik legeetan ezarritakoa garatu dezakete, baina inola ere ez legalki aurrekusiak ez dauden murrizketak xedatu. Zentzu horretan, KAk urtarrilak 21ean 3/1988 epaiaren bitartez ebatzi zuen zigor edukia duten erregelamendu independenteak konstituzio kontrakoak direla, menpeko erregelamenduak aldiz, konstituzionalak⁶⁴. Erregelamendu independente horiek konstituzio kontrakoak izan ez daitezten egitura organikoaren eskumenak zehaztera (adib. espetxe organoen konposaketa, eskumenen banaketa...) eta espetxean egiten den bizitzaren antolaketara (adb. ordutegiak, garbiketa, elikadura...) mugatu beharko lirateke.

Hortaz, harreman berezi honen ondorioak soilik arlo administratiboetara zabaldu daitezke Administrazioak duen antolakuntza ahalmenarekin bat, baina botere hori

⁶¹ KAE 175/2000, uztailaren 28koa, 2. OJ. Zentzu berean definitu zen MPAA 271/2001, otsailaren 9koa, 4. OJan: *“cuando la relación que une al administrado con la Administración es más intensa y especializada, con ciudadanos en una situación de sujeción especial (prestación del servicio militar, prestación de trabajo como funcionario público, o cumplimiento de penas en un centro penitenciario), la Administración titular del servicio público cuenta con poderes adicionales y, a su vez, el administrado (soldado, funcionario o interno en centro penitenciario) tiene obligaciones especiales.”*

⁶² AGE 3701/1981, apirilaren 11koa. Epai honi erreferentzia egiten diote MPAA 39/2002, urtarrilaren 11ko, 3. OJak eta MPAA 170/2001, otsailaren 2ko, 4. OJ ak.

⁶³ MJANE 10526/2013, ekainaren 24koa, 3. OJak horrela dio literalki: *“La Instrucción 12/2011 se integra entre los denominados por la doctrina “reglamentos administrativos o de organización” dictados en el marco de las relaciones de “sujeción especial” en los que la Administración tiene un mayor poder de disposición. La sentencia del Tribunal Supremo, Sala de lo Contencioso Administrativo de 11 de abril de 1981, distingue en la potestad reglamentaria de la Administración una mayor o menor autonomía según se ejerza ad intra, es decir, con fines puramente autoorganizativos o en el marco de las relaciones especiales o ad extra, cuando regula obligaciones de los ciudadanos en situación de sujeción general; si bien, en ambos casos esta potestad aparece limitada (principios de jerarquía normativa, irretroactividad, ...)”* Ebazten hau berretsi du AGE 2865/2015, ekainaren 29koa, 1. OJan.

⁶⁴ Honela adierazten da literalki KAE 3/1988, urtarrilaren 21ekoa, 9. OJan.: *“El mandato del art. 25.1 determina la necesaria cobertura de la potestad sancionadora de la Administración en una norma de rango legal, pero no excluye que esa norma contenga remisiones a normas reglamentarias, siempre que en aquélla queden suficientemente determinados los elementos esenciales de la conducta antijurídica (de tal manera que sólo sean infracciones las acciones u omisiones subsumibles en la norma con rango de Ley) y la naturaleza y límites de las sanciones a imponer. El art. 25.1 C.E., pues, prohíbe la remisión al reglamento que «haga posible una regulación independiente y no claramente subordinada a la Ley» (STC 83/1984, de 24 de julio), pero no impide la colaboración reglamentaria en la normativa sancionadora”.*

espetxe arloan egikaritzeak eskubide konstituzionalen urrapen bat dakar⁶⁵. LÓPEZ BENÍTEZ en hitzetan, *“en el seno de las relaciones de sujeción especial, se reconoce que la Instrucción o Circular encubre un reglamento cuando pretende establecer determinado “modus vivendi” fuera de los estrictos confines de la relación de sujeción especial. Estas circulares necesitan para producirse una autorización legal distinta de la simple habilitación para emanar este tipo de normas que se haya conferido a la autoridad administrativa competente”*⁶⁶.

Administrazioak duen eskumenaren inguruan, azken urteetan jurisprudentziaren norabideak hainbat aldaketa jasan ditu. Lehen, epaitegiek onartzen zuten salbuespenezko hainbat kasutan administrazioak ahalmen araugilea egikartzeko zuen eskumena. Baina gaur egun hainbat gairen arauketaren inguruan konpromezu legal sendoago bat hartzera behartzen du jurisprudentziak, materia horiek oinarritzko eskubideekin duten loturagatik⁶⁷. Zehazki, jurisprudentziak erregelamenduen bidez arautuak izan diren diziplina arau-hausteen eta klasifikazioen inguruan ebatzi du. Epaitegiek adierazi dutenez, soilik salbuespenez arautu ahalko dira materia hauek erregelamendu, zirkular eta instrukzioen bidez. Honen adibide da KAKo ekainaren 27ko 120/1990 epaia, bertan ezartzen zelarik: *“esta relación de especial sujeción, que debe ser siempre entendida en un sentido reductivo compatible con el valor preferente que corresponde a los derechos fundamentales, origina un entramado de derechos y deberes recíprocos de la Administración y el recluso, entre los que destaca el esencial deber de la primera de velar por la vida, integridad y salud del segundo, valores que vienen constitucionalmente consagrados y permiten, en determinadas situaciones, imponer limitaciones a los derechos fundamentales de internos (...)”*⁶⁸.

Aldaketa norabide honetan, eragin nabarmena izan zuen jada aipaturiko AGren martxoaren 17ko 2555/2009 epaiak JBPFei dagokienez. Honen bidez, 21/1996 Zirkularren lehen atala indargabetu zen, honek presoaren klasifikazioa zehazten baitzuen zirkular bidez. Hala ere, epai honen eragin praktikako gauzeza izan zuen, zeren eta auzia urte luzez luzatzearen ondorioz, legegileak araudi berria indarrean jarri zuen, zeinak, indargabetutako atalaren edukiaren kopia bat zen.

Azkenik, aurreko orrietan adierazi dugunez ELOOK erregelamenduei igorpen gehiegi egiten dizkio. Hau dela eta, doktrinak maiz kritikatu izan du egoera honek legaltasun printzipioa nabarmenki urratzen duela. Jarraian, igorpen hauen ondorio nagusiak azalduko ditugu. Lehenik eta behin, diziplina arau-haustea legez arautua ez egotea litzateke, ELOOren 42.2. artikuluan⁶⁹ soilik zigorrak zehazten baitira baina ez

⁶⁵ Gogor kritikatzan du CERVELLÓ DONDERIS, VICENTAK, “Revisión de legalidad penitenciaria en la regulación del régimen cerrado y los FIES”, *op. cit.*, 5. or.

⁶⁶ LÓPEZ BENÍTEZ, MARIANO, *Naturaleza y presupuestos constitucionales de las relaciones de sujeción especial*, Civitas, Madrid, 1994, 375. or.

⁶⁷ Horrela dio CERVELLÓ DONDERIS, VICENTAK, “Revisión de legalidad penitenciaria en la regulación del régimen cerrado y los FIES”, *op. cit.*, 5. or

⁶⁸ KAE 120/1990, ekainaren 27koa, 6. OJ. Zentzu berean ebatzi du Konstituzio Epaitegiak, KAE 57/1994 otsailaren 28koa, 3. OJ eta KAE 140/2002, ekainaren 3koa, 5. OJ. Azken erabaki honetan, Auzitegiaren arabera, *“la naturaleza especial de aquella relación de especial sujeción y la peculiaridad del marco normativo constitucional derivado del art. 25.2 CE supone que entre la Administración penitenciaria y el recluso se establezcan un conjunto de derechos y deberes recíprocos, que deben ser entendidos en un sentido reductivo y, a la vez, compatible con el valor preferente de los derechos fundamentales.”*

⁶⁹ ELOO 42.2. art.: *“No podrán imponerse otras sanciones que: a) Aislamiento en celda, que no podrá exceder de catorce días. b) Aislamiento de hasta siete fines de semana. c) Privación de permisos de salida por un tiempo que no podrá ser superior a dos meses. d) Limitación de las comunicaciones orales al mínimo de tiempo previsto reglamentariamente, durante un mes como*

arau-haustea. Honek lege erreserbaren kontra egiten du, zeren eta, zigor hauen bidez oinarrizko eskubideen egikaritzea mugatzen baita eta honen inguruko arauak lege bidez burutzeko mandatua baitago, segurtasun juridikoa kolokan jarritz. Bigarrenik, Administrazioa ezartzeko eskumena duen isolamendu zigorrak EK 25.3. artikulua⁷⁰ urratzen du. Artikulu honek dioenez, Administrazioak ez du eskumenik askatasun eskubidea modu zuzenean edo zeharkakoan mugatzen duten zigorrak ezartzeko. Beraz, Administrazioak Botere Judizialari dagokion eskumena egikaritzen du botere banaketaren printzipioa urratuz. Hirugarrenik, lehenengo graduko preso moduan kalifikatua izan dadin kontutan hartu beharreko ezaugarriak erregelamenduaren bidez zehazten dira eta ez lege bidez. Arau hierarkiaren printzipioaren kontra egiten du honek, zeren eta ez da nahikoa ELOOko 10. artikulua ezartzen dituen irizpide orokorrekin, honen zehaztapena lege bidez burutu behar da politika-kriminal ezberdinek azkar eraldatzeko aukera izan ez dezaten. Azkenik, gizarte eraldaketei azkar moldatzeko aukera ematen du igorpenak. Hau da, arautu behar diren figura horiek sortzen direnetik, arautzen dituen erregelamendua indarrean sartzen den tarteko denboran administrazioaren zirkular edo instrukzio bidez azkarrago zehazteko aukera ematen dute.

Lege erreserbaren inguruan eginiko azterketa honetatik adierazi dezakegu legegilearen borondatea fitxategiei lege mailako babesa ematea dela baina hala ere hainbat zirrikitu zabalik uzten ditu administrazioak botere araugilea egikaritu dezan. Honen ondorioa da JBPFak lege bidez arautuak ez daudela gaur egun, soilik erregelamendu zein instrukzioek xedatzen dituzte. Erregelamenduak ezin badu berritu, mugatu, kontrajarri edo eraldatu legeak ezartzen duena, instrukzioak are gutxiago⁷¹. Agerikoa da honako hau gai eztabaidatua dela epaitegiek emaniko ebazpen kontrajarriak aztertutik, baina legegileak kontziente izan beharko luke eztabaida juridikoetatik haratago, ondorio eta kalteak pairatzen dituen norbanakoa preso dela, kartzelak haien oihuak mututzen dituela hitzak lapurtuz.

5.1.3. Araudi hierarkiak lekualdatzen

Lege eta erregelamenduen arteko harremanari dagokionez, ZKren 3.2. artikulua⁷² ezartzen du legeak erregelamenduari egin dakioken bidalketa eta honek araudi hierarkiaren printzipioarekin (EK 9.3. art⁷³) bat egin behar duela. Horren arabera, lege eta erregelamendu baten edukia kontrajarriak izanda, legea lehenetsiko da. Honen bidez, Administrazioak espetxe-exekuzioan esku sartze handia ez izatea lortu nahi da,

máximo. e) Privación de paseos y actos recreativos comunes, en cuanto sea compatible con la salud física y mental, hasta un mes como máximo. f) Amonestación.

⁷⁰ EK 25.3. art.: “Administrazio zibilak, zuzenki edo laguntza gisaz askatasun gabetasuna inplikatzeko duen zigorrak ezingo du ezarri.”

⁷¹ Zentzun honetan, CABRERA CABRERA, PEDRO JOSE eta RÍOS MARTÍN, JULIÁN CARLOS, *op. cit.*, 55. or. Aipatutako autoreek oso argi uzten dute: “*si el Reglamento no puede innovar la Ley, ni contradecirla, ni limitarla, ni modificarla, no es legalmente posible que una Instrucción pueda hacerlo.*”

⁷² ZK 3.2. art.: “Halaber, ezin izango da zigorrak ez segurtasun-neurririk betearazi, legeak eta legea garatzen duten erregelamenduek ezarri moduan eta lege eta araudi horien testuan ezarritako inguruabarrekin edo ezaugarriekin ez bada. Zigorraren edo segurtasun-neurriaren betearazpena auzitegi eta epaile eskudunen kontrolpean egingo da.”

⁷³ EK 9.3. art.: “Konstituzioak legalitatearen printzipioa garantizatzen du, baita arau hierarkia, arau publikitatea, eskubi bakarren aurkako edo murrizgarri diren zigor disposapen atzeragaitza, ziurtasun juridikoa, ardua eta botere publikoen arbitrakeriaren eragozpena.”

legegilearen borondatea lehenetsiz. 1201/1981 Errege Dekretuaren bidez onartutako Espetxe Erregelamenduan printzipio hau ez zen behar bezala errespetatu, maiz legeak ezartzen zuenari kontrajartzen baitzitzaion, gaur egun indarrean dagoen 1996ko EEan berdina gertatzen delarik. Horren adibide da EEaren 43. artikuluan isolamendu zigorra ezartzeko inguruabar berriak ezartzen dituela, zeinak aurreikusiak ez dauden ELOOaren 42. artikuluan, honek araudi hierarkiaren printzipioaren kontra egiten duelarik.

Bestalde, EIZOk emandako zirkular eta instrukzioen helburua espetxeetan presoen erregimena antolatzea da. azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Administrazio Publikoen Erregimen Juridiko eta Administrazio Prozedimendu Ohikoari buruzkoak⁷⁴, 21.1. artikuluan⁷⁵ ezartzen duenez. Horrela, espetxe-administrazioari bide ematen zaio hierarkikoki haien menpekoak diren organoen jarduerak zirkular, instrukzio edo zerbitzu aginduen bidez zuzentzeko. Beraz, Administrazioari eskumen araugilea onartzen zaio administrazio eta barne gestiorako. Aukera zabaltzen zaio Administrazioari instrukzio edo zirkularren bidez ELOOak edo EEak arautu ez dutena zehazteko. Horrez gain, Administrazioaren jarduerak egin behar duena da “*unificar criterios de actuación, interpretar de manera uniforme las normas legales y reglamentarias y regular el funcionamiento de los centros bajo parámetros homologables*”⁷⁶. Nahiz eta modu argian araututa egon Administrazioaren eskumen araugilea, kritika ugari jaso ditu. Eztabaida honen muinean, oinarrizko eskubideen lotura sendoa duten hainbat administrazio arau daude. Horietako bat JBPFak zehazten dituzten arauak dira eta jada aipatu dugun AGren 2555/2009 ebazpenean 21/1996ko Instrukzioak hierarkia printzipioaren urraketa burutzen duela onartzen da⁷⁷.

RODRÍGUEZ YAGÜEk argitasunez biltzen ditu aipatu berri ditugun ideiak, adieraziz JBPFek bizi erregimen berria sortzen dutela zeinak ELOOren eta EEren babesa ez duen⁷⁸. Horregatik, esan dezakegu fitxategiek legaltasun, lege erreserba eta araudi hierarkiaren printzipioak urratzen dituztela⁷⁹. Nahiz eta jurisprudenziak onartu

⁷⁴ Gaztelaniaz: *Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común*

⁷⁵ 30/1992 Legea, Administrazio Publikoen Erregimen Juridiko eta Administrazio Prozedimendu Ohikoari buruzkoa 21.1. art.: “*Los órganos administrativos podrán dirigir las actividades de sus órganos jerárquicamente dependientes mediante instrucciones y órdenes de servicio.*”

⁷⁶ ARRIBAS LÓPEZ, EUGENIOren esanetan, “*La sentencia del Tribunal Supremo de 17 de marzo de 2009 y las instrucciones y órdenes de servicio de la Administración Penitenciaria*”, *Diario La Ley*, 7268 zk., 2009, 2. or.

⁷⁷ AGE 2555/2009, martxoaren 17koa, 10. OJ: “*la potestad de autodisposición en materia organizativa de la Administración está limitada por los principios de jerarquía normativa, interdicción de la arbitrariedad y de sometimiento pleno a la ley y al derecho, mientras que la Instrucción impugnada se extralimita y va más allá del mandato de la Disposición Transitoria 4ª del Reglamento Penitenciario, de 1996, de refundir, armonizar y adecuar a lo dispuesto en el propio Reglamento las circulares, instrucciones y órdenes de servicio dictadas con anterioridad, de manera que su propio contenido contradice lo expresado en ella para justificar su aprobación, y así no sólo crea una base de datos de carácter administrativo sino que establece un nuevo régimen y un estatuto de derechos y deberes diferente y más restrictivo del previsto en la legislación vigente, a pesar de que las instrucciones, circulares o resoluciones de los órganos de la Administración, sin potestad reglamentaria, sólo pueden tener eficacia interna para la gestión eficaz de los servicios atribuidos a cada centro directivo (...).*”

⁷⁸ RODRÍGUEZ YAGÜE, ANA CRISTINA, “*El modelo penitenciario español frente al terrorismo*”, *Diario La Ley*, 19959 zk., 2009, 11. or.

⁷⁹ Azaldu berri duguna honela laburtu du CERVELLÓ DONDERIS, VICENTAk, “*Revisión de legalidad penitenciaria en la regulación del régimen cerrado y los FIES*”, *op. cit.*, 6. or.: “*En el primer caso, además de vulnerar la reserva de ley, dado que las infracciones penitenciarias provocan sanciones limitativas de los derechos fundamentales y por ello deberían estar tipificadas en la ley penitenciaria, y no limitarse a su regulación reglamentaria, se atenta a la*

izan zirkular zein instrukzioek erregelamendu izaera izan dezaketela, funtsezkoak diren bi elementu falta dira fitxategien araudia deuseza izan ez dadin: publizitatea⁸⁰ eta zuzendaritza orokor mailako administrazio organo batetan jatorria izatea.

5.2. Fitxategien aplikazio eta kontrolaren gabeziak

5.2.1. Aplikazioaren erabakia administrazioaren eskutan

Lehenik eta behin, fitxategietan barneratua izango dira *“determinadas personas caracterizadas por la comisión de diferentes hechos, imponiendo notables limitaciones y controles en su régimen de vida sin que se requiera autorización o seguimiento por el órgano judicial”*⁸¹. Bigarrenik, fitxategian barneratu izateko erabakia hartzea nori dagokio horrela ezartzen du araudiak: *“el alta y la baja en el Fichero se producirá por decisión del Centro Directivo a la vista de los informes que se posean, de oficio o a propuesta de los responsables de los Centros.”*⁸². Azkenik, AGK ekainaren 29ko 2865/2015 epaian ebatzi zuenez, *“la inclusión en el Fichero no requiere un pronunciamiento motivado”*⁸³. Hortaz, espetxe-administrazioa bera izango da preso fitxategi hauen barnean sartzeko erabakia arrazoitzeko beharrik gabe bere eskutan izango duena⁸⁴.

Bestalde, espetxe administratzaileek jakinarazi beharko diote presoari fitxategietan barneratu izan dela. Horrela ezartzen du Madrilgo Probintzia Auzitegiak - aurrerantzean, MPA- otsailaren 2ko 270/2001 Autoak adieraziz presoari fitxategien inguruan jakinarazi behar zaiona: *“la incorporación a él de los datos sólo exige la información al interesado de determinadas circunstancias previstas en el artículo 5 de la LORTAD, como de la propia existencia del fichero automatizado, la finalidad de la recogida de los datos y los destinatarios de la información, de las consecuencias de la obtención de los datos, o de la posibilidad de ejercitar los derechos de acceso, rectificación y cancelación; información que el propio artículo excluye cuando del contenido de ella se deduce claramente de la naturaleza de los datos personales que se solicitan o de las circunstancias en que se recaban”*.

Hala ere, presoaren onespina ez da beharrezkoa izango JBPFan barneratua izan dadin, hau da, bere datu pertsonalen tratamendua burutzeko bere baimena ez da beharrezkoa. Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, izaera pertsonaleko datuen

seguridad jurídica; en el segundo, se puede hablar de una intromisión de la Administración en el ámbito del poder judicial contraria a la división de poderes y, finalmente, en el tercero se vulnera el principio de jerarquía normativa porque no basta con los criterios genéricos del art. 10 LOGP, sino que su concreción también debe exigir regulación legal, precisamente para que el sustrato esencial del régimen cerrado sea inquebrantable, sin que eventuales necesidades político-criminales permitan una modificación rápida sin las debidas garantías .”

⁸⁰ Honen inguruan adierazten dute CABRERA CABRERA, PEDRO JOSEK eta RÍOS MARTÍN, JULIÁN CARLOSEK, *op. cit.*, 55. or.: *“Este carácter interno es lo que justifica que la eficacia de las circulares e instrucciones no esté condicionada a su publicación como sucede con las leyes (art. 2.1 CC) y con las disposiciones administrativas (art. 29 LRJAE)”*

⁸¹ *Ibid.*, 50 or.

⁸² 12/2011 Instrukzioa, 5. or.

⁸³ AGE 2865/2015, ekainaren 28koa, 1. OJ

⁸⁴ Kontrako zentzuan ezarri zuen Europar Kontseiluko Ministro Batzordeak estatu kideei eginko delitugile arriskutsuen inguruko (2014)3 Gomendioan, 2014ko otsailaren 7koa, 3. or.: *“Cualquier decisión que pueda resultar en una privación o una restricción de libertad para un delincuente peligroso debe ser tomada o avalada por la autoridad judicial.”*

babes eta eskubide digitalen bermeei buruzkoak, 8.2. artikuluan ezartzen du “*El tratamiento de datos personales solo podrá considerarse fundado en el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable, en los términos previstos en el artículo 6.1 e) del Reglamento (UE) 2016/679, cuando derive de una competencia atribuida por una norma con rango de ley.*” Honek, apirilaren 27ko Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamenduari erreferentzia egiten dio, datu pertsonalen tratamendu eta datu hauen zirkulazio librearen ingurukoa pertsona fisikoen babesari buruzkoa, zehazki 6.1.e) artikulura garamatza: “*El tratamiento solo será lícito si se cumple al menos una de las siguientes condiciones: el tratamiento es necesario para el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento*” Zentzu berean, EEren 7.1. artikulua dio “*Cuando los datos de carácter personal de los reclusos se recojan para el ejercicio de las funciones propias de la Administración penitenciaria no será preciso el consentimiento del interno afectado, salvo en los relativos a su ideología, religión o creencias.*”

5.2.2. Indibidualizazio zientifikoa kolektibizatzen

Preso bat JBPFen barne sartzeko erabakia ez dator bat espetxe ordenamendu oinarrizko printzipioa den indibidualizazio zientifikoarekin⁸⁵. Fitxategian barneratzeko erabakia ez dago norbanakoaren pertsonalitatean edo bere berezko ezaugarrietan oinarrituta. Aplikaziorako datu objektiboak hartzen dira kontutan, hala nola burututako delitu mota, espetxe ibilbidea edo talde kriminal baten kide baldin bada. Zentzu horretan, EELOk 72.1. artikuluan⁸⁶ ezartzen du, askatasun gabetzea dakartzaten zigorrak indibidualizazio zientifikorekin sistemaren arabera exekutatu direla. Beraz, beharrezkoa izango da presoaren indibidualizazioa JBPFetan barneratua izan dadin.

Horrez gain, presoak kartzelara sartzen denean talde teknikoko kideek hainbat elkarrizketa egiten dizkiote eta bertan bildutako informazioarekin, presoaren egoera prozesal zein penitentziarioari buruzko espedientea zabalduko da (ELOO 15.2. art⁸⁷). Lortutako informazioa presoari jakinaraziko zaio eta bertatik ondorioztatuko da presoari ezarriko zaion tratamendu indibidualizaturako programa. Bertan zehaztuko da presoak burutu dezakeen lanbidea, jaso dezakeen formakuntza profesional zein kulturala edo aplikagarri zaizkion laguntza neurriak (EE 20.2. art⁸⁸). Tratamendua burutzeko presoak

⁸⁵ Horrela definitzen du kontzeptu hau FERNÁNDEZ BERMEJO, DANIELEk, *Individualización científica y tratamiento en prisión*, Ministerio de Interior, Madril, 2014, 20. or.: “*La individualización científica es, en todo caso, una forma especializada de individualización, a desarrollar progresivamente en el entorno de la reclusión, por virtud de la cual las ciencias de la conducta participan y atienden a la evolutiva singularidad del penado, arrumbando incluso con criterios clásicos de separación intramuros. La individualización es, también, la esencia y el objeto de la clasificación. Ésta se despliega hacia el penado como criterio selectivo, situacional o incluso moldeador de su hábitat, concebido para poner en marcha el específico proceso tratamental y, con ello, afrontar y tender puentes hacia la futura resocialización del interno.*”

⁸⁶ EELO 72.1. art.: “*Las penas privativas de libertad se ejecutarán según el sistema de individualización científica, separado en grados, el último de los cuales será el de libertad condicional, conforme determina el Código Penal.*”

⁸⁷ ELOO 15.2. art.: “*A cada interno se le abrirá un expediente personal relativo a su situación procesal y penitenciaria del que tendrá derecho a ser informado, y para cada penado se formará un protocolo de personalidad.*”

⁸⁸ EE 20.2. art.: “*(...) Por la Junta de Tratamiento, previo informe del Equipo Técnico, se contrastarán los datos del protocolo y se formulará un programa individualizado de tratamiento sobre aspectos tales como ocupación laboral, formación cultural y profesional, aplicación de*

gradueta kalifikatu behar da eta presoak kartzela egokienera eraman, tratamendua eta gradua kontutan izanda. Horretarako, aurretik behaketa burutzea beharrezkoa da, non presoaren pertsonalitatea zein den aztertuko den (ELOO 64⁸⁹ eta EE 111⁹⁰). Behaketa hauek zuzenean burutzen dira, hau da, bildutako datuetatik, elkarrizketekin eta behaketa esperimentalekin. Pertsonaren jarrera aztertzeaz gain, presoaren zein ezaugarri delitu bat burutzeko joera azalartzen duen aztertzen dute. Klasifikaziorako kontutan hartzen da pertsonalitatea, aurrekari historia indibidual, familiar, sozial eta delituzkoak, zigorren iraupena, presoak bueltatzen den inguru soziala eta bere baliabideak, honek guztiak tratamenduaren arrakasta baldintzatuko dutelarik (ELOO 63. art⁹¹).

Arriskutsuak diren presoak edo egokitze arazoak dituztenei aditu teknikoak balorazioa burutzen die erregimen itxia edo departamendu berezi batean barneratuak izatea zehazteko (ELOO 10. art⁹²). Kalifikazio hori egiteko EEaren 102.5. artikuluan⁹³

medidas de ayuda, tratamiento y las que hubieran de tenerse en cuenta para el momento de la liberación.”

⁸⁹ ELOO 64. art.: “Uno. La observación de los preventivos se limitará a recoger la mayor información posible sobre cada uno de ellos a través de datos documentales y de entrevistas, y mediante la observación directa del comportamiento, estableciendo sobre estas bases la separación o clasificación interior en grupos a que hace referencia el artículo dieciséis, y todo ello en cuanto sea compatible con la presunción de inocencia. Dos. Una vez recaída sentencia condenatoria, se completará la información anterior con un estudio científico de la personalidad del observado, formulando en base a dichos estudios e informaciones una determinación del tipo criminológico, un diagnóstico de capacidad criminal y de adaptabilidad social y la propuesta razonada de grado de tratamiento y de destino al tipo de establecimiento que corresponda”.

⁹⁰ EE 111. art.: “1. Las tareas de observación, clasificación y tratamiento penitenciarios las realizarán las Juntas de Tratamiento y sus decisiones serán ejecutadas por los Equipos Técnicos, cuya composición y funciones se determinan en la Sección 2.ª del Capítulo II del Título XI de este Reglamento. 2. Para la adecuada ejecución de estas actividades por los Equipos Técnicos se contará con la colaboración del resto de los profesionales del ámbito penitenciario. A tal fin, la Administración Penitenciaria desarrollará modelos de gestión que incentiven la participación de todos los empleados públicos para lograr programas de tratamiento eficaces. 3. Se facilitará la colaboración y participación de los ciudadanos y de instituciones o asociaciones públicas o privadas”.

⁹¹ ELOO 63. art.: “Para la individualización del tratamiento, tras la adecuada observación de cada penado, se realizará su clasificación, destinándose al establecimiento cuyo régimen sea más adecuado al tratamiento que se le haya señalado, y, en su caso, al grupo o sección más idóneo dentro de aquél. La clasificación debe tomar en cuenta no solo la personalidad y el historial individual, familiar, social y delictivo del interno, sino también la duración de la pena y medidas penales en su caso, el medio a que probablemente retornará y los recursos, facilidades y dificultades existentes en cada caso y momento para el buen éxito del tratamiento”.

⁹² ELOO 10. art.: “1. No obstante lo dispuesto en el número Uno del artículo anterior, existirán establecimientos de cumplimiento de régimen cerrado o departamentos especiales para los penados calificados de peligrosidad extrema o para casos de inadaptación a los regímenes ordinario y abierto, apreciados por causas objetivas en resolución motivada, a no ser que el estudio de la personalidad del sujeto denote la presencia de anomalías o deficiencias que deban determinar su destino al centro especial correspondiente. 2. También podrán ser destinados a estos establecimientos o departamentos especiales con carácter de excepción y absoluta separación de los penados, dando cuenta a la autoridad judicial correspondiente, aquellos internos preventivos en los que concurren las circunstancias expresadas en el número anterior, entendiéndose que la inadaptación se refiere al régimen propio de los establecimientos de preventivos. 3. El régimen de estos centros se caracterizará por una limitación de las actividades en común de los internos y por un mayor control y vigilancia sobre los mismos en la forma que reglamentariamente se determine. La permanencia de los internos destinados a estos centros será por el tiempo necesario hasta tanto desaparezcan o disminuyan las razones o circunstancias que determinaron su ingreso.”

⁹³ EE 102.5. art.: “Conforme a lo dispuesto en el artículo 10 de la Ley Orgánica General Penitenciaria, se clasificarán en primer grado a los internos calificados de peligrosidad extrema

ezartzen diren ezaugarriak hartzen dira kontutan, hala nola burututako delituaren izaera, bizitza edo askatasunaren kontrako ekintzak eta antolaturiko talde armatu bateko kide izatea. Honen ondorioz, gainerako presoek ezartzen zaiena baino kontrol handiagoa zein ekintzen mugapen zorrotzagoa ezarriko zaio presoaren erregimenean. Hala ere, sei hilabetero berraztertuko da presoaren kalifikazioa hau, aldatzeko aukera egongo delarik.

Aldiz, honako berrazterketa eta kontrol hau ez da burutzen fitxategietan barneraturik dauden presoengatik, beti ere jarraipen bereziko preso bezala kalifikatuak izateko nahikoa oinarri baldin badago. Araudiak ez du ezartzen gehiegizko epe bat presoaren fitxategien barne egon dadin. Horrez gain, hasieran fitxategietan barneratzeko arrazoitzen diren inguruabarren aldaketarik suertatuz gero, araudiak ez du ezartzen berrazterketarako inolako betebeharririk. CERVELLÓ DONDENISen hitzetan, *“si se comparan las características del primer grado, los departamentos especiales y los ficheros, hay grandes similitudes, incluso en algunos casos con más restricciones, y sin embargo no se requiere propuesta razonada de la Junta de Tratamiento ni comunicación al Juez de Vigilancia en 72 horas, como se exige en el primer grado o departamentos especiales (art. 95 RP), ni revisión cada tres meses como sucede en la modalidad de régimen cerrado, aunque, al igual que el mismo, no contempla ningún máximo de duración temporal”*⁹⁴. Beraz, nahiz eta presoaren jada presondegiko segurtasuna kolokan ez jarri edo arrisku bat ez suposatuta bertan dauden preso edo funtzionarioentzat, ez dago araututa inguruabar berriei egokitzeko prozedura bat. Dirudienez, behin sartuta inoiz atera ez zaitezkeen zulo bat dira fitxategiak.

5.2.3. Erregimena tratamenduaren gainetik

Espetxeko jarduera bi eremu ezberdinetan banatu daiteke: erregimena eta tratamendua. Bien arteko bereizketa egitea maiz ez da erraza, askotan bata bestean parte hartzen baitu. Batetik, ELOOren III. Tituluan tratamendua ekintza ezberdin multzoa modura definitzen da, zeinaren helburua presoaren berreziketa eta birgizartratzea den⁹⁵. Bestetik, erregimena antolaturiko elkarbizitza baketsua bermatzeko arau eta

o inadaptación manifiesta y grave a las normas generales de convivencia ordenada, ponderando la concurrencia de factores tales como: a) Naturaleza de los delitos cometidos a lo largo de su historial delictivo, que denote una personalidad agresiva, violenta y antisocial. b) Comisión de actos que atenten contra la vida o la integridad física de las personas, la libertad sexual o la propiedad, cometidos en modos o formas especialmente violentos. c) Pertenencia a organizaciones delictivas o a bandas armadas, mientras no muestren, en ambos casos, signos inequívocos de haberse sustraído a la disciplina interna de dichas organizaciones o bandas. d) Participación activa en motines, plantas, agresiones físicas, amenazas o coacciones. e) Comisión de infracciones disciplinarias calificadas de muy graves o graves, de manera reiterada y sostenida en el tiempo. f) Introducción o posesión de armas de fuego en el Establecimiento penitenciario, así como la tenencia de drogas tóxicas, estupefacientes y sustancias psicotrópicas en cantidad importante, que haga presumir su destino al tráfico.”

⁹⁴ CERVELLÓ DONDERIS, VICENTA, “Revisión de legalidad penitenciaria en la regulación del régimen cerrado y los FIES”, *op. cit.*, 28 or.

⁹⁵ Orokorrean definitzen du tratamendua ELOO 59. artikulua: “1. El tratamiento penitenciario consiste en el conjunto de actividades directamente dirigidas a la consecución de la reeducación y inserción social de los penados. 2. El tratamiento pretende hacer del interno una persona con la intención y la capacidad de vivir respetando la Ley penal, así como de subvenir a sus necesidades. A tal fin, se procurará, en la medida de lo posible, desarrollar en ellos una actitud de respeto a sí mismos y de responsabilidad individual y social con respecto a su familia, al prójimo y a la sociedad en general”.

neurri multzoa da eta tratamenduak arrakasta izan dezan egoera oparoa sortzea du helburu (EE 73.1. art⁹⁶).

Fitxategien inguruko araudiaren sorreran zein aplikazioan beti egon dira erregimenaren betebeharrak tratamenduak ezartzen dituenaren gainetik. Presoa fitxategietan barneratzean, tratamenduaren garrantzia difuminatu egiten da, anekdota hutsa bihurtzen delarik⁹⁷. Behaketa eta tratamendu taldeak ez du behar bezalako jarraipena burutzen presoaren egoeraren inguruan, dagokion tratamendua modu egokian aplikatzea bigarren lerroan jartzen da fitxategiek lehentasuna dutelarik. Egoera honek espainiar ordenamendu juridikoaren oinarri den indibidualizazio zientifikoa zuzenean kontrajartzen du⁹⁸, ondorio zuzenak dituelarik presoaren birgizarteratze prozesuan⁹⁹. Baieztapen hau babestu duen adibide bat da fitxategien aplikazioari gehiegizko epe bat ezartzen ez zaiola, ohikoa ez den neurri baten ezarpenaren iraupena administrazioaren esku jarritz.

5.2.4. Ezarpen automatikoa duten neurriak

12/2011 Instrukzioak ezartzen du ezingo dela eskubideen murrizketa edo debekuak eragiten dituzten neurriak oinarritu fitxategien sartuta daudela argudiatuz soilik. Hala, murrizketa horiek burutu ahal izateko presondegiaren ordena bermatzeko edo tratamenduaren betetzearen alde egiteko helburuetan oinarritu behar dira, beti ere presoaren egoera pertsonalak kontutan hartuta. Honen bidez legegileak eskubide murrizketa kolektiboak ekidin nahi ditu eta indibidualizazioaren alde egiten du, segurtasun neurriek bete behar duten beharrezkotasun eta proportzionaltasun printzipioaren alde¹⁰⁰. Horrela ezartzen du EE 6.2. artikulua: *“Ninguna decisión de la Administración penitenciaria que implique la apreciación del comportamiento humano de los reclusos podrá fundamentarse, exclusivamente, en un tratamiento automatizado de datos o informaciones que ofrezcan una definición del perfil o de la personalidad del interno.”* Azaroaren 29an KAK, 170/1996 epaiaren bidez, ebatzi zuen komunikazioen interbentzioa ezin zitekeela oinarritu presoa fitxategietan barneratua egotearen

⁹⁶ EE 73.1. art.: *“el conjunto de normas o medidas que persiguen la consecución de una convivencia ordenada y pacífica que permita alcanzar el ambiente adecuado para el éxito del tratamiento y la retención y custodia de los reclusos”*.

⁹⁷ RÍOS MARTÍN, JULIÁN CARLOS, *op. cit.*, 10. or. Literalki dio: *“han prevalecido las exigencias del régimen sobre el tratamiento, primando aquél sobre éste, con lo que el tratamiento se convierte en algo puramente anecdótico, echándose en falta un seguimiento puntual por parte del equipo de observación y tratamiento que valore su aplicación concreta y los resultados de la misma”*.

⁹⁸ RODRÍGUEZ YAGÜE, ANA CRISTINA, *op. cit.*, 11. or.

⁹⁹ Birgizarteratzeak duen garrantziaz hitz egiten du BRANDARIZ GARCÍA, JOSÉ ÁNGELEk, *“Notas sobre el régimen penitenciario para penados considerados extremadamente peligrosos: Departamentos especiales y F.I.E.S.-1 (CD)”*, *Estudios Penales y Criminológicos*, XXIII lib., 135 zk., 2001-2002, 62. or.: *“(…) en un esquema penológico que renuncia por completo a la resocialización y la sustituye por la finalidad incapacitadora, se adecua más al mencionado modelo de Estado secundario. El problema es, en fin, que un régimen incapacitador come el de los departamentos especiales y los F.I.E.S.-I (CD), no sólo vulnera los arts. 9, 15 e 25 CE, sino que se reclame Democrático y de Derecho”*.

¹⁰⁰ CERVELLÓ DONDERIS, VICENTA, *“Revisión de legalidad penitenciaria en la regulación del régimen cerrado y los FIES”*, *op. cit.*, 28. or.: *“(…) evitar restricciones colectivas y exigir que sean individuales; por ello, parece más razonable el cumplimiento de los criterios de necesidad y proporcionalidad que el art. 71.1 RP establece para cualquier medida de seguridad.”*

arrazoiagatik soilik¹⁰¹. Hau eginez gero, indibidualizazio zientifikoaren, proportzionaltasunaren eta beharrezkotasun printzipioak urratuko baitziren. Zentzu berean, MPAREN otsailaren 9ko 271/2001 autoan adierazi zuenez, fitxategietan barneraturik egoteak ez ditu baldintzatzen presoak egin ditzakeen ekintza kulturalak, kirol jarduerak edo beste edozein ekintza, nahiz eta horretarako neurri berezia ezarri izan presoari¹⁰².

Aipatu berri duguna kontrajarriz, KAK bidea ireki du modu kolektiboan eskubideak murrizten dituzten neurriak ezarriak izan daitezzen preso fitxategiaren barnean egotearen arrazoian oinarrituz soilik. Horren adibide da KAREN azaroaren 24ko 200/1997 epaian ezartzen dena: *"el dato de la pertenencia a una concreta organización de la que consta que ha atentado reiteradamente contra la seguridad de las prisiones y contra la vida y la libertad de los funcionarios supone en este caso una individualización suficiente de las circunstancias que justifican la medida, ya que se conoce suficientemente el riesgo concreto de esta organización que en efecto puede poner en peligro la seguridad y buen orden del Centro"*¹⁰³. Horrenbestez, talde konkretu baten kide izateagatik justifikatua egon liteke neurri hauen ezarpena ulertuta, talde horretako partaideek orokorrean presondegiaren segurtasuna edo tratamenduaren egokitasuna kolokan jarri izan dutela. Horrela ebatzi du KAK uztailaren 22ko 121/1999 epaian, adieraziz indibidualizazioa burutzeko beharrezkoak diren presoaren ezaugarri pertsonalak ondorioztagarriak direla talde konkretu baten kideek dituzten ezaugarrietatik, bera honen talde baldin bada. Europatik datozen gomendioek neurrien kontrolean aurrera pausu bat emanaz ezartzen dute: *"La protección de los derechos individuales de los delincuentes peligrosos, especialmente los relativos a la legalidad en la ejecución de las medidas (medida de seguridad de internamiento y medida de control preventivo), debe asegurarse por medio de un seguimiento periódico e independiente, de acuerdo con la legislación nacional, por una autoridad judicial u otro órgano independiente autorizado y que no pertenezca a la administración penitenciaria"*¹⁰⁴.

Errealitate honen adibide da, Altsasuko gazteen kasua¹⁰⁵. Zortzi altsasuarra 2016ko azaroaren 16an atxilotuak izan ziren taberna batean bi guardia zibilen kontrako erasoak burutzea leporatuta. Terrorismo delitu bat burutzeagatik akusatuak izan ziren, ulertzen zelarik Alde Hemendik zein Ospa mugimenduekin harremana izanda, antolaturiko ekintza bat burutu zutela segurtasun indarren kontra. Era berean, bi mugimendu hauek ETA erakundearekin harreman zuzena zutela adierazi zuen Auzitegi Nazionalak maiatzaren 18ko 1782/2016 epaian. Horretatik, Altsasuko gazteak talde konkretu baten barruan zeudela ulertzen zen, ETAKO kide izatea leporaturik kartzelatuak izandakoak. Ondorioz, talde honen ezaugarri orokorretan oinarrituta, fitxategietan barneratzearen erabakia hartu zen eta ez gazte bakoitzaren ezaugarri pertsonalak aztertuz, indibidualizazio zientifikoaren kontra. Ebazpenaren errekurritu ostean, ANE 2023/2018ak, ekainaren 1ean, Altsasuko Gazteek terrorismo delitu bat burutu ez zutela

¹⁰¹ KAE 170/1996, azaroaren 29koa, 5. OJ

¹⁰² MPAA 271/2001, otsailak 9koa, 5. OJ

¹⁰³ KAE 200/1997, azaroaren 24koa, 5. OJ

¹⁰⁴ Literalki dio Europar Kontseiluko Ministro Batzordeak estatu kideei eginiko delitugile arriskutsuen inguruko (2014)3 Gomendioan, 2014ko otsailaren 7koa, 3. or.

¹⁰⁵ Gaur egun, ekainaren 1eko ANren 2023/32018 epaiaren aurrean aurkezturiko apelazio-errekurtsoaren erantzunaren zain daude. Altsasuko Gurasoen elkarteak haien seme-alaben egoeraren inguruko informazio eta berri guztiak bildu dituzte hainbat sare sozialetan: Twitter (@Altsaguskogurazoak) eta Facebook (Altsasuko Gurasoak). Kasuaren inguruko zehaztasunak aurki ditzakegu bideo honetan: NAIZ BIDEOAK, "ALTSASU: Cronología de un despropósito", *Naiz Bideoak kanala*, eskuragarri: https://www.youtube.com/watch?v=bhrRQ_2UQXI (Azken bisita: 2019.01.28)

ebatzi zuen. Horregatik, une hartan behin-behinean espetxeratuak zeuden zazpi gazteak fitxategietatik kanpo geratu ziren¹⁰⁶. Hala ere, fitxategien kontrola eta neurri zorrotzak jasan zituzten bi urtez gazte hauek, aplikazio hori burutzeko oinarririk egon gabe, espetxe-administrazioaren borondatera kondenaturik. Modu berean ematen da fitxategien aplikazioa terrorismo islamiarra leporatuta kartzelatuak izan diren kideen artean¹⁰⁷.

5.2.5. Fitxategien aplikazioa aurkaratzeko zirrikituak

Fitxategiak beharrezkoak dituen datuen bilketa egiteko, instrukzioetan zehaztutakoa jarraikiz, hainbat neurri edo praktika ezartzen dira preso delarik hauen ondorioak jasaten dituen. Presoak uste izanez gero aplikaturiko neurri hori gehiegizkoa edo kaltegarriena dela, presondegiko Zuzendariaren aurrean kexa bat aurkezteko eskubidea du –ELOOK 50. artikuluan¹⁰⁸ ezartzen duenari jarraikiz–. Kexa onartua ez baldin bada, aukera izango du Espetxeratuaren Zaintzako Epailearen aurrean erabaki honen kontra errekurtsoa aurkezteko –ELOOK 76.1. art¹⁰⁹–. Hala ere, oinarriko eskubide bat urratzen baldin bazaio presoari, KAK izango du azken hitz; horrela adierazten du maiatzaren 19ko KAREN 71/2004 epaiak: *“cuando se trata de una medida restrictiva de derechos, compete al Tribunal Constitucional, en su tarea de protección del derecho fundamental afectado, controlar en último término la motivación ofrecida no sólo en el sentido de resolución fundada y razonada, sino también como único medio de comprobar que la restricción del derecho fundamental ha sido razonable y proporcional,*

¹⁰⁶ Horrela azaltzen du EUSKAL HERRIA IRRATIak, “Altsasuko zazpi gazteak Segimendu Bereziko Unitatetik atera dituzte”, *Euskal Herria Irratia*, 2018ko ekainaren 11, eskuragarri: <https://euskalherriarratia.eus/nafarroa/1528715382662-altasasuko-zazpi-gazteak-segimendu-bereziko-unitatetik-atera-dituzte> (Azken bisita: 2019.02.12)

¹⁰⁷ Terrorismo islamiarrari dagokionez, azken urteotan egondako legegilearen joera azalarazten du LEGANÉS GÓMEZ, SANTIAGOK, “Los terroristas islamistas en las prisiones españolas”, *Diario La Ley*, 3681 zk., 2017, 8. or.: *“Con la finalidad tener un mayor control sobre los indicados terroristas, así como evitar la captación de otros presos (20) la SGIIPP el 14 de julio de 2014 elaboró el Programa de Intervención y Prevención para evitar la radicalización en prisión. En este programa se incluyen diferentes medidas de seguridad, desde la separación penitenciaria, pasando por el control de las comunicaciones, etc., llegando a la inclusión de los terroristas y los susceptibles de serlo en el Fichero FIES.”* Zentzu berean ezartzen du Europatik datozen joerek terrorismo islamiarra ekiditeko fitxategien aplikazioa babesten dutela, *ibid.*, 10. or.: *“siguiendo las Directrices para los Servicios Penitenciarios y de Probation sobre la Radicalización y Extremismo Violento, adoptadas por el Comité de Ministros el 2 de marzo de 2016, que recomiendan a los servicios penitenciarios la prevención de la radicalización en personas condenadas, y teniendo como base las Recomendaciones del Consejo de Europa en lo relativo a delincuentes peligrosos con el propósito de reducción de una futura reincidencia, la SSGIIPP a finales del año 2016 ha puesto en marcha un Plan de estado de reinserción en las cárceles ante la radicalización de presos islamistas”.*

¹⁰⁸ ELOOK 50. art.: *“1. Los internos tienen derecho a formular peticiones y quejas relativas a su tratamiento o al régimen del establecimiento ante el Director o persona que lo represente, a fin de que tome las medidas oportunas o, en su caso, las haga llegar a las autoridades u Organismos competentes. Si fueren hechas por escrito, podrán presentarse en pliego cerrado, que se entregará bajo recibo. 2. Si los internos interpusieren alguno de los recursos previstos en esta Ley, los presentarán asimismo ante el Director del establecimiento, quien los hará llegar a la autoridad judicial, entregando una copia sellada de los mismos al recurrente.”*

¹⁰⁹ ELOOK 76.1. art.: *“El Juez de Vigilancia tendrá atribuciones para hacer cumplir la pena impuesta, resolver los recursos referentes a las modificaciones que pueda experimentar con arreglo a lo prescrito en las Leyes y Reglamentos, salvaguardar los derechos de los internos y corregir los abusos y desviaciones que en el cumplimiento de los preceptos del régimen penitenciario puedan producirse.”*

*acorde con los fines de la institución y resultado de un juicio de ponderación de los derechos fundamentales y bienes constitucionales en pugna*¹¹⁰.

Fitxategien aplikazioa deuseztatzeko presoari hainbat bide irekitzen zaizkio, hau da, epailearen aurrean alegazio ezberdinetan aurkez ditzake JBPFen aplikazio eza lortzeko. Errekurtsoak oinarritzeko hainbat argudio zerrendatu ditzakegu¹¹¹:

a) Oinarrizko eskubideen urraketa

KAren irailaren 15eko 241/1994 autoan adierazi zen fitxategian barneratua egotearen ondorioz, presoari ezartzen zitzaizkion neurriek presoaren mugimendu eta komunikaziorako eskubideak mugatzen zituztela¹¹². Honako auto hau babes errekurtsua aurkeztu zuten bi pertsonen zuzenean aplikagarri izan bazen ere, jurisprudenzia modura fitxategietan barneratutako gainerako presoek errekurtsuetan erabil dezakete Espetxe Zaintzako Epaitegien aurrean adieraziz intimitatearen, askatasunaren eta nortasunaren garapen librearen eskubideak urratu zaiela.

b) Indibidualizazio zientifiko falta

MPAk maiatzaren 28an emaniko 571/1997 autoan adierazi zuen: *“el recurso debe prosperar, con el efecto de excluir al interno del mencionado fichero, pues si la mera condena por delito de tráfico de drogas, sin más especificaciones, es insuficiente para afirmar que el penado deba ser incluido entre determinados grupos de internos a fin de poder ejercer “un control adecuado frente a fórmulas altamente complejas y potencialmente desestabilizadoras del sistema penitenciario” (...) En definitiva, la inclusión en ese fichero, y por tanto la consideración como integrante de un grupo de internos de las características antedichas, requiere una motivación que por ninguna parte aparece en el expediente*¹¹³. Jada azaldutako indibidualizazio zientifikoan oinarriturik, preso fitxategien barne sartzearen erabakia ezin da soilik burututako delituaren izaeran oinarritu, presoaren ezaugarri pertsonalak izan behar dira oinarri. Hortaz, administrazioak gertakari objektiboetan soilik oinarritzen baldin bada JBPFak aplikatzeko, presoak errekurtsua aurkez dezake epailearen aurrean indibidualizazio zientifikoaren printzipioaren urrapena alegatuz.

d) Lege kontrakotasuna

BJLO 6. artikuluari¹¹⁴ jarraiki, epaitegiek ezingo dute aplikatu Konstituzioari, Legeari zein araudi hierarkiari kontrajartzeen zaien edozein erregelamendu edo xedapen. Hortaz, auzia ebazteko eskumena duen epaitegiak interpretatzen baldin badu kasuari aplikagarri zaien erregelamendua zuzenbidez deuseza dela, ez du hau aplikatu beharrik eta konpetentzia baldin badu, hau deuseztatu dezake¹¹⁵.

¹¹⁰ KAE 71/2004, maiatzaren 19koa, 8. OJ. Zentzu berean, besteak beste, KAE 54/1992, apirilaren 8koa 3. OJ eta KAE 167/2003, irailaren 29koa, 3. OJ.

¹¹¹ Bide hauek zehazten ditu baita ere RÍOS MARTÍN, JULIÁN CARLOSek, *op. cit.*, 23-24. or.

¹¹² KAA 241/1994, irailaren 15ekoa, OJ bakarra.

¹¹³ MPAA 571/1997, maiatzaren 28koa, 3. OJ.

¹¹⁴ BJLO 6. art.: *“Los Jueces y Tribunales no aplicarán los reglamentos o cualquier otra disposición contrarios a la Constitución, a la ley o al principio de jerarquía normativa”.*

¹¹⁵ LÓPEZ RAMÓN, FERNANDO eta VILLAR ROJAS, FRANCISCO JOSÉ, *El alcance de la invalidez de la actuación administrativa*, Instituto Nacional de Administración Pública (INAP), Madril, 2017, 374. or.

e) *Epaitegien kontrola*

EKaren 106.1 artikularekin¹¹⁶ bat, epaitegien esku egongo da ahalmen erregelamendugile eta administrazioaren jardunaren legezkotasunaren kontrola egitea, beti ere kontutan izanda zein diren justifikatzen dituzten helburuak. Ondorioz, epaileek lege maila ez duten araudien aplikazio eza erabaki dezake kontrol horretatik ondorioztatzen bada konstituzioaren edo legearen kontrakoak direla eta auzi administratibo bidez egingo da. Hau dela eta, “*el control judicial de la Administración se incorpora a las tareas que describen el ámbito de la potestad jurisdiccional*”¹¹⁷. Epaitegiaren aurrean Administrazioaren jardueraren kontrola eskatzeko legitimazio aktiboa modu zabalean ulertu izan du jurisprudentziak, adieraziz eskubide edo interes legitimo bat alegatzen duen edonorrek egin dezakela, nahiz eta interes hau kolektiboa edo lausoa izan. Horrela berretsi du KAK apirilaren 29ko 148/1993ko epaian “*la legitimación activa no se otorga exclusivamente a la víctima o al titular del derecho infringido, sino también a quien ostente un interés legítimo, categoría más amplia que la de derecho subjetivo e incluso interés directo*”¹¹⁸. Hortaz, jurisprudentzia bidea irekitzen du preso ez den norbanako batek, interes legitimo baten babespean, fitxategien kontra egiteko. Bide hau baliatu zuten jada aipatu dugun “*Madres Unidas contra la droga de Madrid*” kolektiboak.

f) *Askatasun murritze neurriak*

Espetxe-administrazioak legeak edo erregelamenduak ezartzen dituen askatasun murrizketak baino neurri murriztzaileagoak ezartzen dituen instrukzioa aplikatzen baldin badu, presoak errekurtsioa aurkezteko aukera izango du ohiko epaitegien aurrean oinarritzko eskubideen urraketa alegatuz. Horrela ezartzen du uztailaren 13ko 29/1998 Administrazioarekiko auzi-jurisdikzioaren Legeak 2.a) artikuluan¹¹⁹. Behin ohiko jurisdikzioaren bidea agortuta, KAren aurrean babes helegitea aurkezteko aukera izango du auzi jartzaileak.

5.2.6. *Datuen trafikoa*

Bestalde, presoari jakinarazten zaionean JBPFan barneratua izan dela, administrazioak obligazioa dauka honekin batera presoari jakinarazteko zuzenketak egiteko edo abenduaren 5eko 3/2018ko Lege Organikoak, izaera pertsonaleko datuen babes eta eskubide digitalen bermeei buruzkoak –hemendik aurrera, DBLO– onartzen dizkion beste hainbat eskubide egikaritu ditzakeela¹²⁰. Orduan, fitxategietan barneratutako datuak ez badute bat egiten DBLOak ezartzen duenarekin, Datuen

¹¹⁶ EK 106.1. art.: “*Los Tribunales controlan la potestad reglamentaria y la legalidad de la actuación administrativa, así como el sometimiento de ésta a los fines que la justifican.*”

¹¹⁷ GUTIÉRREZ GUTIÉRREZ, IGNACIO, *Comentarios a la Constitución Española*, VIII. lib., Edersa, Madril, 2006, 560. or.

¹¹⁸ KAE 148/1993 apirilaren 29koa, 2. OJ. Jurisprudentzia hau berretsi du ondorengo hainbat epaitan. Besteak beste, KAE 60/1982 urriaren 11koa, 3. OJ, KAE 97/1991 maiatzaren 9koa, 2. OJ eta KAE 214/1991, azaroaren 11koa, 3. OJ.

¹¹⁹ 29/1998 Legea, 2.a) art.: “*El orden jurisdiccional contencioso-administrativo conocerá de las cuestiones que se susciten en relación con: a) La protección jurisdiccional de los derechos fundamentales, los elementos reglados y la determinación de las indemnizaciones que fueran procedentes, todo ello en relación con los actos del Gobierno o de los Consejos de Gobierno de las Comunidades Autónomas, cualquiera que fuese la naturaleza de dichos actos.*”

¹²⁰ 12/2011 Instrukzioa, 5. or.

Babeserako Agentziak obligazioa izango du datuen trataeraren behin-behineko etete edo ezeztapenaren inguruan ebazteko¹²¹.

Kartzela bakoitzeko zuzendariak fitxategietarako bilduriko datu guztiak Espetxe Kudeaketarako Zuzendaritzaorde Nagusira bidali behar ditu, erreferentzia eginez presoaren JBPF taldeari. Hauek dira datu horiek¹²²:

- Behin betiko lizentziamendurako proposamena edo baldintzapeko askatasunerako espedientearen bukaerarako akordio proposamena¹²³.
- Espetxetik ateratzeak beste kartzela edo ospitale batera lekualdatzeko.
- Lekualdatzea baten osteko sarrera.
- Egoera penal, prozesal zein espetxe egoeren aldaketa.
- Organo kolegiatuak akordioak eta pertsona bakarreko organoen ebazpenak (adib. santzioak, komunikazioen kontrolak, graduak...)
- Abokatuarekin komunikazioak eta hauen izena.
- Edozein erregimenezko istilu, baita ere gertatu ez baldin bada, baina gerta daitekeelaren susmorik baldin badago.
- Antolaturiko ekintzetan parte hartzeak.
- Irteera baimenen eskaerak non zehaztu behar den ateratzean erresidentzia ezarriko duen etxearen helbidea, talde teknikoak hauek aztertu aurretik.
- Presoen kexak erantzunez Zaintzako Epaitegi edo Auzitegiak emaniko auto edo ebazpenak, beti ere hauek eragina baldin badute presoari ezarritako erregimenean.
- Interesgarria izan daitekeen beste edozein informazio.

Datu hauek zeintzuk diren aztertzerako orduan ikus dezakegu hainbat printzipio eta eskubide urratzen direla hauek jakinaraztean. Lehenik eta behin, espetxe-administrazioak ezin du profesionalen kontrola burutu abokatuekin egikaritzen duen moduan. Bestalde, susmoetan soilik oinarrituak dauden kontrol neurriak eta eskubideen murrizketak errugabetasun-printzipioaren kontra doaz. Irteera baimenen onarpena baldintzatua egon daiteke preso kartzelatik irtetean izango duen bizilekuagatik. Bukatzeko, azken puntuak bide ematen du interpretazioa zabal baten bidez presoaren inguruko datu anitz jakinaraziak izan daitezen eta paralekoki, datu horiek biltzeko neurri ugari ezartzeko¹²⁴.

¹²¹ Gai honetan sakontzeko, interesgarria izan daiteke: SOLAR CALVO, PUERTO, "El acceso al expediente penitenciario. El necesario tránsito de la forma al fondo. A propósito de la nueva normativa en protección de datos", *Diario La Ley*, 9265 zk., 2018

¹²² 12/2011 Instrukzioa, 5-6. or.

¹²³ Honen inguruan bere iritzia adierazten du RÍOS MARTÍN, JULIÁN CARLOSEk, *op. cit.*, 4. or: "Se entiende que estos datos se obtienen para dos fines. Por un lado, para realizar un control posterior -cuando el preso esté libre-, lo que hace ilegal la obtención del dato y la posible intervención porque el objetivo del mismo no es la prevención de incidentes dentro de las cárceles. Por otro lado, la obtención del dato y la actividad de control puede incidir en la decisión de pronóstico final que emita la Junta de tratamiento y que figura en el expediente de libertad condicional antes de que sea elevado al Juez de Vigilancia. Nada impide que tras la comunicación a la Dirección General, el pronóstico pueda ser variado arbitrariamente, ya que ello no se puede controlar judicialmente."

¹²⁴ Datuen trataeraren inguruan bere iritzia adierazi du RÍOS MARTÍN, JULIÁN CARLOSEk, *op. cit.*, 5. or.: "Estar incluido en alguno de los ficheros es uno de los impedimentos, en la práctica, para la concesión de los permisos. Este criterio se maneja hábilmente en la Juntas de régimen, pero el dato no se refleja posteriormente en los acuerdos adoptados. Así el permiso se denegará por otro motivos: importancia del delito o trascendencia social, falta de consolidación de factores positivos, etc...".

5.3. Fitxategien bidez presoek eskubideak ezabatzen

Fitxategien eraginkortasuna eta datu bilketa ahalbidetzeko, araugileak baimendu egiten du presoaren egunerokoan kontrol zorrotzagoa ezartzea. Horretarako ezartzen diren neurriek hainbat oinarritzko eskubide ukitzen dituzte, eskubideen egikaritza oztopatuz zein ekidinez¹²⁵. Jarraian aztertuko ditugu JBPFak zein eskubide murrizten dituen eta horren eragina zein den presoarentzat.

5.3.1. Kanpo harremanak mantentzeko oztopo lasterketa

EKaren 25.2. artikuluan¹²⁶ onartzen da presoek komunikatzeko eskubidea dutela eta honekin bat, KAREN jurisprudentziak berretsi du presoek ere sekretupeko komunikazioak izateko eskubideren jabe direla¹²⁷. ELOO eta EEK ezarri ahalko dituzte presoak telefonoz komunikatzeko izango dituzten mugak baina hauek ezingo diote kalterik egin sekretuaren bortxaezintasunari. ELOOak 51.1. artikuluan¹²⁸ dioenez gartzelaratuak baimenduak egongo direla aldizka komunikatzeko, idatziz edo ahoz haien berezko hizkuntzan senide, lagun zein akreditaturiko instituzioekin, beti ere epaileak ez baldin badu ezarri inkomunikazio judiziala. Intimitatea babesteko modurik egokienean burutuko dira komunikazioak eta soilik tratamenduzko, segurtasunezko zein espetxearen ordena egokian oinarrituta mugatu ahalko dira¹²⁹.

¹²⁵ Fitxategiek ezartzen dituzten neurriek presoaren bizimoa kaltetu ezin dutela ebatzi du Sevillako Espetxe Zaintzako Epaitegiaren 395/2005 Autoak, urriaren 3koa,3. OJan: *“la inclusión en el FIES no puede llevar asociada por sí misma ninguna consecuencia desfavorable para el interno en los ámbitos de régimen y tratamiento penitenciario, ni ninguna medida que suponga una alteración restrictiva respecto a las condiciones generales de vida de los internos clasificados en el mismo grado. Si la Administración penitenciaria considera necesario adoptar alguna medida de este tipo -entre las que claramente se incluyen las limitaciones de destinos y salidas o los cambios periódicos de celda- deberá acudir para ello a la vía de las limitaciones regimentales contempladas en el artículo 75.1 del Reglamento Penitenciario, lo que (...) implica motivación individualizada del acuerdo y la dación de cuenta Juzgado de Vigilancia Penitenciaria, a efectos de control de legalidad y procedencia.”*

¹²⁶ EK 25.2. art.: *“Askatasun bazterte zigorrek eta seguritate neurriek birheziketa eta gizartean bersartzera joko dute eta ez dira izango lan bortxatuak. Presondegira kondenatuak, hura betetzen ari baldin bada, kapitulu hontako oinarritzko eskubideez goza dezake, baina ez espreski huts kondenatorio arazoagatik, zigor zentzu eta presondegia legeagatik mugaturik daudenak. Edonola ere, lan ordaindu batetara eskubidea izango du, eta baita giza asegurantzari dagozkion etekinetera ere, kultura sarbidera eta bere nortasun osoko hazkundera.”*

¹²⁷ Zentzu honetan, KAE 230/2012, abenduaren 10ekoa, 3. OJ eta KAE 200/1997, azaroaren 24koa 4. OJ.

¹²⁸ ELOOak 51.1. artikulua: *“Los internos estarán autorizados para comunicar periódicamente, de forma oral y escrita, en su propia lengua, con sus familiares, amigos y representantes acreditados de organismos e instituciones de cooperación penitenciaria, salvo en los casos de incomunicación judicial. Estas comunicaciones se celebrarán de manera que se respete al máximo la intimidad y no tendrán más restricciones, en cuanto a las personas y al modo, que las impuestas por razones de seguridad, de interés de tratamiento y del buen orden del establecimiento.”*

¹²⁹ Hala ere, ZPAA 389/2018, ekainaren 8koa,1.OJan ezartzen da: *el “Jefe de Servicios podrá ordenar la suspensión de las comunicaciones orales, por propia iniciativa o a propuesta del funcionario encargado del servicio, cuando existan razones fundadas para creer que los comunicantes puedan estar preparando alguna actuación delictiva o que atente contra la convivencia o la seguridad del establecimiento, o que estén propagando noticias falsas que perjudiquen o puedan perjudicar gravemente a la seguridad o al buen orden del establecimiento.”*

12/2011 Instrukzioak komunikazioen interbentzioari buruzko bi arau mota ezartzen direla adierazten du: arau orokorrak eta, interbenituriko komunikazioak gertatzen ari diren bitartean, hartu behar diren kontrol neurriak¹³⁰. Arau orokorrak jada aipaturiko ELOOaren 51.1. artikuluan ezartzen dira eta soilik segurtasuna, tratamenduren interesa edo zentroaren ordena egokia bermatzeko burutu daitezke interbentzioak dira, beti ere erregelamenduan ezarritako moduan. Instrukzioak adierazten du: *“La intervención debe ser motivada y justificada en atención a las circunstancias concretas que concurren en el afectado y delimitada temporalmente, procediéndose a las revisiones pertinentes, cada seis meses, como máximo”*¹³¹. Hala ere, Instrukzioak ere ezartzen du soilik Unitatearen arduraduna den funtzionarioak izango duela komunikazioa hauetan interbentzioa eskuhartzea, inola ere ez direlarik publiko egingo, zabalduko edo baimenik gabeko norbanakoen eskuetan geratuko. Bestalde, arduraduna den funtzionarioak arreta berezia jarri beharko du komunikazio mota hauek kontrolatzeko, bakarrik baimenduak dauden komunikazioen edukiak grabatuz. Bigarreni dagokionez, kontrolaturiko komunikazioa garatzen den bitartean hartu ahal diren neurriak zerrenda hau da¹³²:

- Krontraturiko komunikazioa burutzerara doazenean presoek debekatua izango dute edozein dokumentu, paper, aldizkari edo edozein testu zein idazteko tresna eramatea. Honen helburua hizketakidearekin idatzi bidezko komunikazioa ekiditea, zeina entzuketan bidez ezin daitekeen kontrolatu.
- Mintzategietako ateetan zerrailak jartzea eta presoak barruan dagoen bitartean kanpotik itxia egotea, hau entzuna izateko prest ez dagoen beste gela batera joan ez dadin.
- Espetxeko Zuzendariak protokoloaren betetzea bermatzea, beti komunikazioetan funtzionario bat presente egongo delarik, komunikazioen kontrola kaltetu dezakeen edozein jardura burutu ez dezan presoak.
- Komunikazio bitartean presoak edo beste pertsonak debekatuak dauden materialak erabiltzen baditu mezu bat emateko edo informatzeko –EEaren 45. artikularekin bat–, komunikazioa bertan behera geratuko da. Presoa baldin bada nota erabili duena, interbentzioa burutuko da. Honen ondorioz, diziplinazko espediente bat irekiko da.
- Presoek jasotzen dituzten eskutitzen kopia burutzen da eta 15 eguneko epean Segurtasuneko Koordinazioak hauen edukiari buruz ezer adierazi ez badu, presoaren esku utziko dira. Horrek esan nahi du gutxienez 15 eguneko atzerapenarekin jasoko dituela presoak.

Hala ere, argi izan behar dugu komunikazioen kontrola ezingo dela inoiz burutu abokatuarekin dituen komunikazioetan, salbuespen moduan baimenduko da hauen kontrola baimen judiziala badago eta terrorismo kasu bat baldin bada (ELOO 51.2 art.¹³³

¹³⁰ 12/2011 Instrukzioa, 11-12 or. Horrela aztertzen du baita ere ALONSO PÉREZ, FRANCISCOk, “Intervenciones de las comunicaciones en el ámbito penitenciario”, *Diario La Ley*, 20163 zk., 2011, 1. or.

¹³¹ 12/2011 Instrukzioa, 11. or.

¹³² 12/2011 Instrukzioa, 12. or.

¹³³ ELOO 51.2. art.: *“Las comunicaciones de los internos con el Abogado defensor o con el Abogado expresamente llamado en relación con asuntos penales y con los Procuradores que lo representen, se celebrarán en departamentos apropiados y no podrán ser suspendidas o intervenidas salvo por orden de la autoridad judicial y en los supuestos de terrorismo.”*

eta PKL¹³⁴ 520.7¹³⁵ art.). Honen harira, KAK uztailaren 20ko 183/1994 epaian¹³⁶ ezarri zuen metatze eran ulertu behar direla bi betekizunak, hau da, abokatuarekin presoak dituen komunikazioak interbenitu ahal izateko, terrorismo kasu bat izan behar du eta kontrola burutzeko baimen judiziala egon behar da¹³⁷.

Bestalde, komunikazio eskubideari dagokionez, bi talde nagusitan banatzen dira komunikazioa burutzen duten norbanakoak: senide zuzenak eta senide zuzenak ez direnak. Bigarren taldearekin burutzen diren komunikazioetan du eragin nabariagoa presoak fitxategian barneratua egoteak. Senide zuzenak ez diren norbanakotzat hartzen dira: lagunak, kideetasunagatik ahaidetasun harremanak, bikotekideak eta izateko bikoteak¹³⁸.

Lagunekin burututako ahozko komunikazioak murriztutako pertsona kopuru batekin soilik burutu ahalko da¹³⁹. Horretarako, presoak zerrenda bat burutu beharko du gehienez hamar lagunaren izenarekin eta behin ziurtatuta ez dagoela inolako segurtasun arrazoirik komunikazio hauek aurrera eramateko, presoak soilik 10 horiekin komunikatzeko baimena izango du. Zerrenda hau aldatu ahalko du presoak sei hilabete edo gehiagoko maiztasunarekin. Bestalde, kideetasunagatik ahaidetasun harremana duten pertsonekin komunikatzeko eskaera egitearekin batera, hau egiaztatzeko legalki onartua dagoen egintza juridikoaren dokumentazioa aurkeztu beharko da. Azkenik, bikotekide zein egitatezko bikotekideekin burututako komunikazioak oralak 12/2011 Instrukzioak senideekin burutzen direnen maila berean jartzen ditu¹⁴⁰. Hala ere,

¹³⁴ Prozedura Kriminaleko Legea, 1882ko irailaren 14ko Errege Dekretuaren bidez aldarrikatu zena.

¹³⁵ PKL 520.7. art.: *“Las comunicaciones entre el investigado o encausado y su abogado tendrán carácter confidencial en los mismos términos y con las mismas excepciones previstas en el apartado 4 del artículo 118.”* Horrela dio PKL 118.4. artikulua: *“Todas las comunicaciones entre el investigado o encausado y su abogado tendrán carácter confidencial.*

Si estas conversaciones o comunicaciones hubieran sido captadas o intervenidas durante la ejecución de alguna de las diligencias reguladas en esta ley, el juez ordenará la eliminación de la grabación o la entrega al destinatario de la correspondencia detenida, dejando constancia de estas circunstancias en las actuaciones.

Lo dispuesto en el párrafo primero no será de aplicación cuando se constate la existencia de indicios objetivos de la participación del abogado en el hecho delictivo investigado o de su implicación junto con el investigado o encausado en la comisión de otra infracción penal, sin perjuicio de lo dispuesto en la Ley General Penitenciaria.”

¹³⁶ KAE 183/1994, uztailaren 20koa, 5. OJ: *“Dichas condiciones habilitantes deben por el contrario, considerarse acumulativas y, en su consecuencia, llegarse a la conclusión que el art. 51.2 de la L.O.G.P. autoriza únicamente a la autoridad judicial para suspender o intervenir, de manera motivada y proporcionada, las comunicaciones del interno con su Abogado sin que autorice en ningún caso a la Administración Penitenciaria para interferir esas comunicaciones”.*

¹³⁷ Honela adierazi du NISTAL MARTÍNEZ, JAVIERrek, *“La libertad de las comunicaciones con el abogado defensor como garantía del derecho a la defensa”*, *Diario La Ley*, 2151 zk., 2010 9 or.: *“El Alto Tribunal con su doctrina viene a reforzar el derecho de defensa, interpretando el art. 51.2 LOGP del modo más favorable para quien se encuentra en prisión, al considerar que la intervención de las comunicaciones de los internos con sus abogados defensores tienen un tratamiento más riguroso y limitado que el general del art. 579 LECrim.”*

¹³⁸ Horrela ulertzen du ARRIBAS LÓPEZ, EUGENIOk, *“Fichero de internos de especial seguimiento (FIES): Incidencia de la reforma del reglamento penitenciario y de la normativa administrativa interna posterior”*, *Diario La Ley*, 8291 zk., 2012, 12 or.

¹³⁹ 12/2011 Instrukzioa, 16 or.: *“En este sentido los internos deberán facilitar a los responsables de cada centro un listado de un máximo de diez amigos, que serán los únicos, una vez comprobado que no existen razones de seguridad que aconsejen no autorizar las visitas, con los que podrán autorizarse las comunicaciones. Con una periodicidad no inferior a seis meses se le permitirá modificar la relación de amigos con lo que pretenda comunicar.”*

¹⁴⁰ Horrela adierazten du, *ibid.*, 13 or.

Instrukzioak ezartzen du harremana duen pertsonaren familiari ez zaizkiola modu analogoan senideei ezartzen zaizkion baldintzak aplikatzen. Adibidez, bikotekidearen anaiari ez zaio koinatu izaera emango, lagun batekin burututako komunikaziotzat hartuko litzateke.

Bikote harremana egiaztatzeko hainbat bide ezartzen ditu 12/2011 Instrukzioak: egitatezko bikoteen erregistroan izen ematea, elkarbizitza ziurtagiria eta erroldatze ziurtagiria. Beti ere, ziurtagiri hauen data presoaren kartzelan sartu aurretikoak izan behar dira. Bide hauetatik egiaztatu ez bada harremana, bikote bezala onartua izan dadin beharrezkoa izango da harremana frogatzen duten sei hilabete baino gehiagoko maiztasuneko komunikazioak burutu izana. Komunikazio hauek onartuak izan ez daitezzen Espetxe Segurtasuneko Koordinazioak segurtasun arazoak ekar ditzakela argudiatu behar du ebazpen arrazoitu baten bidez eta presoari jakinarazi behar zaio. Presoak honi kontra egiteko aukera izango du eskumenduna den agintari judizialaren aurrean, Espetxe Zaintzako Epailearen edo Espetxe Zaintzako Epaile Zentralaren aurrean hain zuzen. Honen bidez, espetxe-administrazioaren jarduna judizialki kontrolatzea ahalbidetzen da presoaren eskubideak urratu ez daitezken¹⁴¹.

Azkenik, azpimarratu beharra dago orokorrean komunikazioen kontrola zehaztugabeko aldi baterako ezartzen dela eta hilabetero edo hiru hilabetero berritzen joaten dela, nahiz eta informazio berririk lortu ez izan kontrolaren bidez. Honen inguruan KAK urriaren 27ko 175/1997 epaian ezarri zuen: *“las resoluciones administrativas de intervención de las comunicaciones no sólo han de cumplir los preceptos legales citados, y por tanto el de la motivación prevista en el art. 51.5 de la Ley General Penitenciaria¹⁴², sino, en cuanto medida que supone el sacrificio de un derecho fundamental, los presupuestos y requisitos exigibles según nuestra reiterada doctrina y que hemos sistematizado de forma genérica en la sentencia del Tribunal Constitucional 207/1996 y, con relación al tema que nos ocupa, recientemente en la sentencia del Tribunal Constitucional 128/1997”¹⁴³*. Bide honetan, urriaren 29ko 71/2004 KAEk adierazten du: *“cuando se trata de una medida restrictiva de derechos compete al Tribunal Constitucional, en su tarea de protección del derecho fundamental afectado, controlar en último término la motivación ofrecida no sólo en el sentido de resolución fundada y razonada, sino también como único medio de comprobar que la restricción del derecho fundamental ha sido razonable y proporcional, acorde con los fines de la Constitución y resultado de un juicio de ponderación de los derechos fundamentales y bienes constitucionales en pugna”¹⁴⁴*. Hala, KAKen jurisprudentziak ezartzen du komunikazioen kontrola burutu ahal izateko erabakia arrazoitua eta oinarria izateaz gain, beharrezkotasun eta proportzionaltasun printzipioak bete behar dituela legezkoa izan dadin, kontutan izanda oinarrizko eskubide baten egikaritze mugatzen dutela¹⁴⁵. GEEAK

¹⁴¹ Modu berean azaldu du ibid, 13. or.

¹⁴² ELOO 51.5. art.: *“Las comunicaciones orales y escritas previstas en este artículo podrán ser suspendidas o intervenidas motivadamente por el Director del establecimiento, dando cuenta a la autoridad judicial competente”*.

¹⁴³ KAE 175/1997 urriaren 27koa, 4. OJ

¹⁴⁴ KAE 71/2004, urriaren 29koa, 8. OJ. Zentzu berean, KAE 128/1997 uztailaren 14koa, 4. OJ eta KAE 170/1996 urriaren 29koa, 6. OJ.

¹⁴⁵ Honela laburtzen ditu betekizunak ALONSO PÉREZ, FRANCISCOk, *op. cit.*, 2-4. or.: *“Resumidamente, tales presupuestos son: a) Persecución de un fin constitucionalmente legítimo y que esté previsto por la Ley. b) Resolución de la Dirección del Centro especialmente motivada y notificada al interesado. c) Proporcionalidad de la medida. d) Necesidad legal de su comunicación a la autoridad judicial competente de forma inmediata (sentencias del Tribunal Constitucional 183/1994 y 170/1996)”*.

bi epaietan berretsi du presoen komunikazioen kontrolan garrantzia nabarmena dutela neurri hau justifikatzen duten arrazoiak eta honen iraupena, bi irizpide hauek proportzionaltasun eta beharrezkotasun printzipioak bete behar dituztelarik¹⁴⁶.

Presoaren birgizarteratze prozesuan kanpo ingurunearekin duen harremanak garrantzi nabarmena du, uler daitekeelarik komunikazioa harreman horiek mantentzeko beharrezko trena dela. JBPfetan barneratua egoteak, baldintza gehigarria ezartzen dizkio presoari komunikatzeko eskubidea oztopatuz eta hartu-eman mugatuz segurtasunaren izenean. Bestalde, araudiak modu zabalean ezartzen ditu komunikazioen kontrola burutzeko neurri posibleak eta baita ere hauen iraupena, presoaren babesgabezia sustatuz. Gainera, betebeharrak gehigarri hauek ere presoaren lagunen egunerokoa baldintzatzen dute presoari bisitatzeko aukerari zailtasunak ezarriz. Araudiaren arabera, 6 hilabetetan zehar hamar lagunen bidez soilik bete beharko dira bisitak, urtean bi aldiz gehienez zerrenda aldatzeko eskubidea izango duelarik presoak.

Azkenik, komunikazio eskubidea egikaritzeko administrazioak ezartzen dituen mugen barruan, presoaren brisozialazio prozesua eta senide zein lagunekin harremana mantentzea zailtzen duen beste faktore bat aipatu nahiko nuke, espetze dispersio politika¹⁴⁷. Jada azaldu dugunez, ETako kide izateagatik terrorismo delituengatik kartzelaratuak izan diren presoak fitxategien barne zuzenean sartu izan dira eta egoera honi gehitu behar diogu haien etxetik urrun, ehundaka kilometrotara gartzelaratuak izan direla. Errealitate honek presoak kanpoaldearekin duen komunikazioa baldintzatzen baldin bada ere, bere senide zein lagunen egunerokoa oztopo ugari suposatzen ditu. Instrukzioak baimentzen duenez, soilik 10 pertsonekin sei hilabetetako bisitak bete behar dituzte, honek senide zein lagunetzat karga ekonomikoki, fisiko eta emozional handia suposatzen duelarik. Presoaz gain, politika honek bere ingurukoak ere zigortzen ditu eta honek harremana mantentzea zailtzen du komunikazioa delarik honen ardatz. Zailtasunez lor daiteke pertsona baten birgizarteratzea eta askatasunezko etorkizun baterako prestatzea bere jatorrizko inguru sozialetik aislatzen baldin bada, bere senide eta kulturarekiko komunikazioa zailduz¹⁴⁸. Horrez gain, defentsarako eskubidea ere oztopatzen du dispersioak, azken finean,

¹⁴⁶ GEEAE 15943/90, *Domenichini vs. Italia*, 1996ko azaroaren 15eko eta GEEAE 15211/89, *Calogero Diana vs. Italia*, 1996ko azaroaren 15ekoa.

¹⁴⁷ Dispersioaren sorrera argitasunez azaltzen du FERNÁNDEZ CABRERA, MARTAK, "La política de dispersión de presos de ETA a la luz de la jurisprudencia del Tribunal Europeo de Derechos Humanos", *Cuadernos de política criminal*, 125 zk., 2018, 110. or.: "La política de dispersión surge en 1987 como reacción a la política de concentración vigente en la primera mitad de la década de 1980. Esta pretendía aglutinar en cuatro centros penitenciarios a reclusos condenados por terrorismo con objetivos como el de evitar el contagio criminológico hacia otros delincuentes comunes, neutralizar el proselitismo ideológico que realizaban en esos años los activistas del GRAPO y evitar la derivación de esos grupos terroristas, cuya continuación era incierta, hacia tipos de delincuencia común. No obstante, la agrupación carcelaria de terroristas de ETA dio lugar precisamente a efectos contrarios a los que se pretendían, causando que el colectivo se reforzara, realizando presiones continuas y reivindicaciones (huelgas de hambre, renuncia a todo tipo de comunicación con el exterior, etc.) para obtener una mejora de su régimen penitenciario en comparación con el de otros presos comunes. Comprobados los efectos perversos que produjo, la Administración optó por la opción contraria: la dispersión. A partir de 1987 y hasta nuestros días los presos condenados por terrorismo se encuentran cumpliendo condena por toda la geografía española. El objetivo, señaló el Ministerio de Justicia en su momento, era "romper los lazos de los miembros de las organizaciones terroristas tanto con éstas como con asociaciones y colectivos afines situados en su órbita de actuación, facilitando con ello el abandono de la organización terrorista, y eventualmente su reinserción social".

¹⁴⁸ Horrela azaldu du CANO PAÑOS, MIGUEL ANGELEK, "El régimen penitenciario de los terroristas de ETA ¿Mantenimiento, supresión o modificación?", *Diario La Ley*, 7821 zk., 2012, 41. or.

presoaren abokatuari zailagoa egingo zaio hurren dagoen presondegirano bere defendatuarekin hitz egitera hurbiltzea¹⁴⁹. Aipatu beharra dugu GEEAk *Del Río Prada vs. Espainia kasuan*¹⁵⁰ espetxe dispersioa babestu zuela, beraz logika horren barruan ezingo lituzke fitxategiak baztertu Zentroaren informazio iturri bat dela ulertuta¹⁵¹. Beraz, fitxategien aplikazioari dispersio politika gehituz gero, presoaren espetxe erregimenaren gogortze nabaria ematen da, oinarrizko eskubideak murriztuz eta eguneroko bidea oztopoz betez.

5.3.2. Irakurketa mugatua, bi liburu soilik

Argitalpenen kontrolaren inguruan ELOOak 58. artikuluan ezartzen du: “*Los internos tienen derecho a disponer de libros, periódicos y revistas de libre circulación en el exterior, con las limitaciones que, en casos concretos, aconsejen las exigencias del tratamiento individualizado, previa resolución motivada del equipo de observación y tratamiento del establecimiento. Asimismo estarán informados a través de audiciones radiofónicas, televisivas y otras análogas.*” Honekin batera, EEaren 128.2. artikulua diona kontuan hartu behar da: “*En todo caso, no se autorizará la tenencia en el interior de los Establecimientos, de publicaciones que carezcan de depósito legal o pie de imprenta, con excepción de las editadas en el propio Centro penitenciario, así como las que atenten contra la seguridad y buen orden del Establecimiento. Cuando, como consecuencia de dicha prohibición, le sea retirada a algún interno una publicación no autorizada, la resolución que se adopte se notificará al interno y se comunicará al Juez de Vigilancia.*” Gai honen inguruan 12/2011 Instrukzioak ezartzen du gordailu legekoa duten baimendutako argitalpenak presoaren eskutan jarri aurretik, Espetxe Segurtasunaren Koordinaziora bidaliko direla argitalpen hauen originalak, baldin eta hauen edukiak zentroaren segurtasuna arriskuan jarri ahal badute edo bere edukia ezagutezina bihurtzen duten hizkuntza edo dialekto batean idatzia badago¹⁵².

Kontutan hartu behar dugu argitalpenen kontrolak harreman zuzena duela presoaren hezkuntzarako eskubidearekin. EKak 27. artikuluan¹⁵³ ezartzen da hezkuntza

¹⁴⁹ Errealitate hau azaleratu du GIMBERNAT DÍAZ, EVAk, “El derecho penitenciario del enemigo aplicable a los presos por delitos de terrorismo”, AAAA (Zuzend. CUERDA RIEZU, ANTONIO RAFAEL), *El derecho penal ante el fin de ETA*, Tecnos, Madril, 2012, 103. or.

¹⁵⁰ GEEAE 42750/09, *Del Río Prada vs. Espainia*, 2013ko urriaren 21eko

¹⁵¹ Horrela azaltzen du ANDRÉS LASO, ANTONIO, *La Ley Orgánica 1/1979, de 26 de septiembre, General Penitenciaria: orígenes, evolución y futuro*, Ministerio del Interior, Madril, 2016, 684 or.

¹⁵² 12/2011 Instrukzioa, 12-13. or.

¹⁵³ EK 27. art.: “1. Guztiek dute hezkuntzarako eskubidea. Irakaskuntzaren askatasuna aitortzen da. 2. Hezkuntzak, helburu bezala du, giza nortasunaren aurreramentu osoa, bizikidetasun printzipio demokratikoak errespetatuz eta baita behin-behineko eskubide eta askatasunak ere. 3. Botere publikoek gurasoei dagokien eskubidea garantizatuko dute haien seme-alabek hezkuntza erlijioso eta morala har dezaten beraien uste sendoei dagokien bezalaxe. 4. Oinarrizko irakaskuntza behartua eta dohainik da. 5. Botere publikoek hezkuntzarako guztien eskubidea garantizatzen dute, irakaskuntzako programaketa orokor baten bitartez, dagozkien sail guztien egiazko parte hartzeaz eta ikastetxeak sortuz. 6. Pertsona fisiko eta juridikoei aitortzen zaie ikastetxeak sortzeko askatasuna konstituzioko oinarriari dagokien begirune barruan. 7. Irakasle, guraso eta, dagokienean, ikasleek parte hartuko dute, legeak ezartzen dituen mugetan, Administrazioak herri ondasunez ordaindutako ikastetxe guztien kontrol eta gestioan. 8. Botere publikoek hezkuntza sistema arakatu eta homologatuko dute legeen betetzea garantiza dadin. 9. Botere publikoek, legeak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituzten ikastetxeak lagunduko dituzte. 10. Unibertsitateen autonomia errekonozitzen da legeak ezartzen dituen neurrian.”

pertsona ororentzat oinarrizko eskubidea dela eta 25.2. artikularekin¹⁵⁴ bat eginez, espetxe tratamenduaren oinarrizko elementua dela baieztatu dezakegu birgizartratzea lortzeko helburuarekin¹⁵⁵. JBPFan barneraturik dauden norbanakoei kontrol zorrotzagoa ezartzen zaie beraien eskuetara heltzen diren argitalpenen inguruan, hau da, preso hauek aldizkari, liburu edo egunkari bat jasotzeko traba gehiago izaten ohi dituzte. Material hau guztiz oinarrizkoa da presoaren ikasketak aurrera eraman ahal izateko, maiz unibertsitate bidali behar zaizkiolako apunteak edo senideek espetxetik kanpo testu liburuak erosi behar dizkiote presondegian lortu ezin dituelako. Hala, argitalpen guzti hauen originalak bidali behar dira espetxe segurtasuneko kontrol sailera eta balorazioaren ostean hauek konfiskatu ditzake presondegiko segurtasunaren kontra joan daitezkeela arrazoituz edo publikazioak ulertzen ez duten hizkuntza batean idatziak egoteak bere edukia ulertezin bihurtzen dutenean¹⁵⁶.

Gure ustetan, kartzelak duen birgizartratzea eta berreziketa funtzio nagusiaren kontra negatiboki zuzenki eragiten du JBPFan barneratua egoteak hezkuntza eskubideari ezartzen zaizkion traben ondorioz. Formakuntza, heziketa, lan, aisialdi, kirol zein kirol ekintzek presondegia eragin negatiboak leuntzen dute eta presoaren garapen pertsonala ahalbidetu¹⁵⁷. Presoaren eskuetara heltzen diren argitalpenak eta idatziak mugatzeak, gartzelaratuak nahi duen hizkuntzan ikastea ezinezkoa bihurtzen du hizkuntza hau ez baldin badute espetxe-administratzaileek ezagutzen, ikasketak prozesua oztopatuz eta hizkuntza-eskubidea urratuz¹⁵⁸.

5.3.3. Intimitaterik gabeko bizia

EKK 18.1. artikuluan¹⁵⁹ ezartzen du pertsona orok intimitaterako oinarrizko eskubidea onartua duela eta presoaren askatasun gabetzeak ez duela eskubide honen urrapena justifikatzen¹⁶⁰. Kontuan hartuta presoaren ziegaren barruan eta espetxeko

¹⁵⁴ EK 25.2. art.: "Askatasun bazterte zigorrek eta seguritate neurriek birreziketa eta gizartearen bersartzera joko dute eta ez dira izango lan bortxatuak. Presondegira kondenatuak, hura betetzen ari baldin bada, kapitulu hontako oinarrizko eskubideez goza dezake, baina ez espreski huts kondenatorio arazoagatik, zigor zentzu eta presondegiko legeagatik mugaturik daudenak. Edonola ere, lan ordaindu batetara eskubidea izango du, eta baita giza asegurantzari dagozkion etekinetera ere, kultura sarbidera eta bere nortasun osoko hazkundera."

¹⁵⁵ Horrela adierazi du RODRÍGUEZ YAGÜE, CRITINAK, "El derecho a la educación en el sistema penitenciario español", *Diario La Ley*, 8290 zk., 2012, 1. or.

¹⁵⁶ Zentzu honetan, *ibid.*, 17. or.: "se prevé como una de las medidas de seguridad relativas al control de internos vinculados a grupos terroristas y otras organizaciones o grupos de delincuencia organizada que de las publicaciones (revistas, periódicos, libros, etc.) que se hayan autorizado a estos internos, se enviarán los originales, una vez revisado su contenido en el centro, que se consideren que pueden atacar contra la seguridad del establecimiento o estén redactados en un idioma o dialecto que impida conocer su contenido."

¹⁵⁷ Honela azaldu du *ibid.*, 4. or.

¹⁵⁸ Horren adibide dira Altsasuko gazteak. Ezustean behin-behinean kartzelatuak izan ziren terrorismo kasu bat leporatuta, horregatik zuzenean fitxategietan barneratuak izan ziren. Haietako asko unibertsitateko ikasleak izanda, momentu horretatik aurrera ezingo zuten euskaraz ikasi Euskal Herritik kanpo gartzelatuak baitzeuden eta haien gelakideen apunteak jaso ezta ere, hauek ez zirelako argitalpen zigilatatuak. Horregatik, ikasketak aurrera eraman ahal izateko, kartzelak jada edozein ikaslerentzat suposatzen duen mugaz aparte, beste hizkuntza batean eta liburuak soilik irakurriz ikasi beharko luke hezkuntza prozesua zailduz.

¹⁵⁹ EE 18.1. art.: "Se garantiza el derecho al honor, a la intimidad personal y familiar y a la propia imagen."

¹⁶⁰ Jurisprudentziak intimitate eskubidea honela konfiguratu du KAK. Ikus. KAE 171/2013, urriaren 7koa, 2. OJ: "De la intimidad personal forma parte, según tiene declarado este Tribunal, la

instalazioetan egunak ematen dituela eta hauek funtzionarioengatik zein baliabide teknikoengatik kontrolatuak daudela, nola babestu eskubide hau? Horretarako, egoitzaren kontzeptua aztertu behar dugu eta AGk urtarrilaren 31an emaniko 7046/1995 epaian ezartzen da egoitza dela “*cualquier lugar cerrado, en el que transcurra la vida privada, individual y familiar, sirviendo como residencia estable o transitoria, son a estos efectos domicilio.*”¹⁶¹. Bertatik ondorioztatu dezakegu pertsona bat gartzelaratu denean presondegia bihurtzen dela bere egoitza eta, beraz, bertan intimitate eskubidea egikaritzen du, hau estuki loturik dagoelarik konstituzionalki ezarria dagoen pertsonalitatearen garapenaren eskubidearekin (EK 10.1 art¹⁶²). KAK otsailaren 17ko 22/1984 epaian adierazi duenez, bizilekuaren bortxaezintasuna pertsona guztien oinarrizko eskubide bat da eta honen helburua intimitate eta pribatutasuna babestea da¹⁶³. Ebazpen hau berresten du KAREN azaroaren 4ko 188/2013 epaiak, adieraziz bizilekuaren bortxaezintasun eskubideak intimitaterako eskubidea bermatzea duela helburu¹⁶⁴.

Zentzu honetan araudi batek eguneroko miaketa pertsonalak, eguneroko ziegaren azterketak, ohikotasunez zelda aldaketak, etengabeko behaketa lo orduetan eta abar neurri ezartzen baditu, ezinezkoa izango da presoak intimitaterik izatea. Argi dago bere egoitzaren bortxaezintasun eskubidea urratzen dela fitxategiak ezartzen dituen neurrien ondorioz¹⁶⁵. Espetxe-administrazioak fitxategian barneratua dagoen presoari ezartzen dion kontrol zorrotzak norbanako bezala duen intimitaterako eskubidea ezabatzen du, denbora eta espazioa mugatzen dizkiolarik. 12/2011 Instrukzioak kontrakoa sinestarazi nahi badigu ere, neurri hauek eragin nabaria dute presoaren klasifikazioan, baimenetan eta bizi erregimenean¹⁶⁶.

intimidación corporal, de principio inmune en las relaciones jurídico-públicas que aquí importan, frente a toda indagación o pesquisa que sobre el propio cuerpo quisiera imponerse contra la voluntad de la persona. Con lo que queda así protegido por el ordenamiento el sentimiento de pudor personal, en tanto responda a estimaciones y criterios arraigados en la cultura de la propia comunidad (SSTC 37/1989, FJ 7; 120/1990, FJ 12, y 137/1990, FJ 10).”

¹⁶¹ AGE 7046/1995, urtarrilaren 31koa, 4. OJ

¹⁶² EK 10.1. art.: “*La dignidad de la persona, los derechos inviolables que le son inherentes, el libre desarrollo de la personalidad, el respeto a la ley y a los derechos de los demás son fundamento del orden político y de la paz social.*”

¹⁶³ KAE 22/1984 otsailaren 17koa, 5. OJ: “*La regla primera define la inviolabilidad del domicilio, que constituye un auténtico derecho fundamental de la persona, establecido, según hemos dicho, para garantizar el ámbito de privacidad de ésta, dentro del espacio limitado que la propia persona elige y que tiene que caracterizarse precisamente por quedar exento o inmune a las invasiones o agresiones exteriores, de otras personas o de la autoridad pública.*”

¹⁶⁴ KAE 188/2013 azaroaren 4koa, 2. OJ: “*el domicilio constitucionalmente protegido, en cuanto morada o habitación de la persona, entraña una estrecha vinculación con su ámbito de intimidad, como hemos declarado desde la STC 22/1984, fundamento jurídico 5 (asimismo, SSTC 160/1991 y 50/1995, entre otras); pues lo que se protege no es sólo un espacio físico sino también lo que en él hay de emanación de una persona física y de su esfera privada.*”

¹⁶⁵ Horrela azaltzen du RÍOS MARTÍN, JULIÁN CARLOSEk, *op. cit.*, 7. or.: “*¿Qué entienden por dignidad los legisladores carcelarios? Esta situación supone la negación más absoluta de la intimidad: 21 horas en celda, si está clasificado en primer grado, cambios de celda continuos, cacheos diarios, y control nocturno cada hora. Como ya fundamentaremos más adelante esta situación supone la vulneración del derecho a la dignidad y a la intimidad.*”

¹⁶⁶ Honela adierazi da *ibid.*, 4. or.

5.3.4. Osasun laguntzarako oztopoak

12/2011 Instrukzioak ez du ezer zehazten kartzelako funtzionarioek burutu behar duten osasun laguntzaren inguruan, beraz uler dezakegu espetxeko barne arauen eta protokoloen arabera burutuko dela. Aldiz, espetxetik kanpoko profesional batek burutu behar baldin badu osasun laguntza, fitxategian barneratutako presoak formalki eskaera hau burutu beharko du eta berak aurre egin beharko dio honek duen kostuari (EE 212.3. art.¹⁶⁷). Espetxe Osasuneko Koordinazio Zuzendariorde Orokorrak onartu beharko du eskaera hau eta baita ere presoaren beharren balorazioa egiten duen informeak. Organo honek, loteslea ez den informe bat burutuko du non adieraziko den segurtasun arrazoirik baldin badago, presoaren osasun laguntza mugatzea oinarritzen duena (ELOO 36.3. art.¹⁶⁸). Behin eskaera onartua izanda, 12/2011 Instrukzioak ezartzen du kanpo profesionalen bisita funtzionarioengatik ikuskatua izango dela.

Bestalde, 12/2011 Instrukzioak arreta berezia jartzen du osasun laguntza jasotzeko espetxetik kanpoko ospitaleetara lekualdatuak diren presoaren kontrolaren inguruan norbanako hauek talde terroristak edo antolatutako delinkuentziaren kide baldin badira. Honen oinarria da talde hauen antolakuntza eta baliabide ekonomikoak direla medio, espetxetik kanpo ospitalizatua egoteak izan daitekeela elementu "*distorsionador de las medidas de control y seguridad, por la posibilidad de contactar con otros miembros de su grupo delictivo, obtener ayuda por parte de delincuentes profesionales, acceso a armas de fuego y documentación falsa, con mayor probabilidad de burlar la vigilancia y lograr la evasión [...]*"¹⁶⁹. Arrisku potentzial hauetan oinarriturik, lekualdatzearen eta zaintzaren arduradunak diren Estatuko Segurtasuneko Indar eta Kidegoak koordinazioa eta informazio elkartrukea indartu egiten da, ondorioz zuzena delarik presoarengain kontrol handiagoa ezartzen dela.

Fitxategian barneratua egoteagatik presoaren osasun laguntzarako eskubideari kontrol sendoagoak ezartzen zaizkio. Administrazioak ulertzen du arriskugarritasun maila altuko presoak direnez, zerbitzua jaso bitartean sor daitezkeen ahultasun puntuak ahalbidetuko dituztela haien mesetan. Prozedura honek osasun laguntza moteltzen du, kontutan hartzen ez delarik presoak gaixotasun egoeran baldin badago, bere ongizateak lehentasuna izan beharko lukeela, arrisku egoera bat gertatzeko probabilitatearen aurrean ezartzen den segurtasun neurrien aurrean¹⁷⁰.

¹⁶⁷ EE 212.3. art.: "*Los internos podrán solicitar a su costa servicios médicos privados de profesionales ajenos a Instituciones Penitenciarias. La solicitud será aprobada por el Centro Directivo, salvo cuando razones de seguridad aconsejen limitar este derecho.*"

¹⁶⁸ ELOO 36.3. art.: "*Los internos podrán solicitar a su costa los servicios médicos de profesionales ajenos a las instituciones penitenciarias, excepto cuando razones de seguridad aconsejen limitar este derecho.*"

¹⁶⁹ 12/2011 Instrukzioa, 13 or.

¹⁷⁰ Artikulu honetan fitxategietan baneraturiko presoaren lekukotzak biltzen ditu, horien artean osasunaren inguruan honakoa adierazten du haietako batek: CABRERA CABRERA, PEDRO JOSE eta RÍOS MARTÍN, JULIÁN CARLOS, *op. cit.*, 68. or.: "*La consulta médica se nos realiza a través de la puerta de la celda y sin reservarse el secreto médico paciente ya que el carcelero o carceleros están escuchando la conversación e incluso la interrumpen para ejercer como médicos con sus ocurrencias disparatadas y carentes de fundamento, asimismo bien estas consultas con el médico se realizara en un cuarto de enfermería del módulo no nos violarían el derecho a la intimidad y que a los carceleros no les interesa sobre nuestro estado de salud.*"

5.4. Erregimen berriaren sorrera

12/2011 Instrukzioak fitxategien izaera modu argian zehaztu baldin badu ere, doktrinak zein jurisprudentziak betidanik salatu izan dute JBPFak ezkutuko erregimen bat direla. Argudiaketaren oinarria da lehen graduaren gogortzea dakarrela eta ez duela babes legal nahikorik, ezta ere baimen judizialik¹⁷¹. Kontrara, administrazioako agintariek babesten dute JBPFetan barneratzeak ez duela eraginik presoaren klasifikazioan, ezta ere trataera eta erregimenean¹⁷².

Gai honetan sakontzen hasita, ELOOaren 9.1. artikulua¹⁷³ bi establezimendu mota daudela ezartzen du: arrunta eta irekia; baina, gero, lege berdinen 10.1. artikulua¹⁷⁴ beste bi mota gehitzen ditu: itxia eta departamentu bereziak. ELOOaren 10.3. artikuluan oso orokorki zehazten da zertan datzan azken bi establezimendu hauek: *“El régimen de estos centros se caracterizará por una limitación de las actividades en común de los internos y por un mayor control y vigilancia sobre los mismos en la forma que reglamentariamente se determine.(...)”* Beraz, lau erregimen mota daude¹⁷⁵ eta erregimen itxia zein departamentu bereziak erregelamendu bidez arautuak izan behar direla. Baina aldi berean legegileak ez du zehazten zein den erregimen itxiaren eta departamentu berezien arteko ezberdintasunak eta ezta ere erregelamendu bidez zehazteko mugak zeintzuk diren.

Maiz nahastu izan dira lehen graduako departamentu bereziak eta JBPFak. Izan ere, jatorrian fitxategiak sortu zituzten zirkularrek ere lehen graduaren eta establezimendu berezien baldintzak ezartzen zituzten. Bestelan, zirkular hauetan ezartzen diren hainbat murrizketa berdinak dira fitxategietan eta erregimen itxian zein establezimendu berezietan. Kontrapuntuan, preso bat fitxategien barne sartua izan dadin ez da Tratamendu-Batzordearen argudiatutako arrazoiketarik behar eta ez zaio Zaintzako Epaileari 72 orduko epean jakinarazi behar, bi baldintza hauek bete behar direlarik erregimen itxian zein departamentu berezietan (EEaren 95. art.¹⁷⁶). Horrez gain,

¹⁷¹ GONZÁLEZ COLLANTES, TÀLIA, *op. cit.*, 14 or.

¹⁷² RÍOS MARTÍN, JULIÁN CARLOS, *op. cit.*, 9 or.

Baieztape hau berretsi du baita ere MJANEK 10526/2013, ekainaren 24koa, 3. OJan: *“Además debe subrayarle que la inclusión en el fichero en ningún caso prejuzga la clasificación del interno, veda el derecho al tratamiento, ni supone la fijación de un sistema de vida distinto del que reglamentariamente le venga determinado. En definitiva, se trata de una base de datos de carácter administrativo, que almacena datos de situación penal, procesal y penitenciaria de los internos como una prolongación del expediente personal penitenciario.”*

¹⁷³ ELOO 9.1. art.: *“Los establecimientos de cumplimiento son centros destinados a la ejecución de las penas privativas de libertad. Se organizarán separadamente para hombres y mujeres y serán de dos tipos: de régimen ordinario y abierto.”*

¹⁷⁴ ELOO 10.1. art.: *“No obstante lo dispuesto en el número uno del artículo anterior, existirán establecimientos de cumplimiento de régimen cerrado o departamentos especiales para los penados calificados de peligrosidad extrema o para casos de inadaptación a los regímenes ordinario y abierto, apreciados por causas objetivas en resolución motivada, a no ser que el estudio de la personalidad del sujeto denote la presencia de anomalías o deficiencias que deban determinar su destino al centro especial correspondiente.”*

¹⁷⁵ Honela adierazten du CERVELLÓ DONDERIS, VICENTAK, “Revisión de legalidad penitenciaria en la regulación del régimen cerrado y los FIES”, *op. cit.*, 8. or.: *“el sistema de individualización científica separa la clasificación penitenciaria en cuatro grados: primer grado, que se cumplirá en establecimientos de régimen cerrado; segundo grado, que se cumplirá en establecimientos de régimen ordinario; tercer grado, que se cumplirá en establecimientos de régimen abierto; y libertad condicional.”*

¹⁷⁶ EE 95. art.: *“1. El traslado de un penado desde un Establecimiento de régimen ordinario o abierto a un Establecimiento de régimen cerrado o a uno de los departamentos especiales*

fitxategien kasuan ez da hiru hilabeteroko berrikusketa burutzen eta ez du gehiegizko iraupenik, bi baldintza hauek bai betetzen direlarik erregimen itxian.

Konparaketa hau egin ostean, kontutan hartu behar dugu fitxategien helburu nagusia preso zehatz batzuen jarraipen berezia egiteko datuak lortzea dela. Beraz, informazio hori lortu ahal izateko, araudiak zeinbat neurri ezartzea ahalbidetzen du nahi ta nahiez presoaren egunerokoan eragina izango dutenak, hau da, aplikagarri zaion erregimena aldaraziko dutenak¹⁷⁷. Aipatu dugunez, neurri horien artean dago astero kartzela berdinen barruan lekualdaketak, eta baita ere kartzela ezberdinen artean. Hautazko interbentzioak burutzen dira maiz; hala nola, miaketa pertsonalak, gutuneko kontrola eta isolamendu garaiak¹⁷⁸.

Zentzu honetan, jurisprudenziak adierazi du JBPFak erregimen bereziak direla zeinak ez dauden lege edo erregelamendu bidez arautuak eta presoaren eskubideak legez kontra murrizten dituzte. Honela adierazi zuen MPAAk urtarrilaren 20ko 58/1999 autoan: *“Todas estas medidas, aunque en la Instrucción se diga lo contrario, suponen de forma evidente el sometimiento del interno a un régimen especial no regulado por la Ley ni el Reglamento Penitenciarios que suponen una limitación y restricción de los derechos reconocidos legalmente, creando una situación de desigualdad respecto de los demás internos que tienen la misma clasificación que carece de toda justificación, y que puede repercutir en la obtención de beneficios penitenciarios como puede ser la mayor redención obtenida por el desempeño de destinos de confianza y la posibilidad de acceder a permisos de salida. Además, resulta contrario al sistema de tratamiento individualizado en que se basa nuestro ordenamiento penitenciario al acordarse la inclusión en el FIES no en función de la personalidad del interno sino de su posible o presunta pertenencia a determinados colectivos o grupos”*¹⁷⁹.

Adierazi dugunez, JBPFekin batera ezkutuko erregimen berri bat sortzen da kartzelako establezimenduen zein pertsonalaren segurtasunaren bermatzeko helburuarekin, baina hori lortzeko, beharrezkoa da fitxategiak indarrean egotea? Erregimen berri honen sorrera beharrezkoa ez dela adierazi dezakegu EEaren 100.2 artikuluan¹⁸⁰ oinarrituz. Artikulu honek ahalbidetu egiten du graduen ezaugarriak

contemplados en este Capítulo, competirá al Centro Directivo mediante resolución motivada, previa propuesta razonada de la Junta de Tratamiento contenida en el ejemplar de clasificación o, en su caso, en el de regresión de grado. De este acuerdo se dará conocimiento al Juez de Vigilancia Penitenciaria dentro de las setenta y dos horas siguientes a su adopción. 2. En el mismo plazo, se notificará al penado dicha resolución, mediante entrega de copia de la misma, con expresión del recurso que puede interponer ante el Juez de Vigilancia, conforme a lo dispuesto en el artículo 76.2, f) de la Ley Orgánica General Penitenciaria. 3. Mediando motín, agresión física con arma u objeto peligroso, toma de rehenes o intento violento de evasión, el traslado del penado a un Establecimiento de régimen cerrado podrá acordarse por el Centro Directivo, aunque no se haya producido resolución clasificatoria en primer grado, que, en todo caso, deberá efectuarse dentro de los catorce días siguientes, dando cuenta inmediatamente del traslado al Juez de Vigilancia.”

¹⁷⁷ RÍOS MARTÍN, JULIÁN CARLOS, *op. cit.*, 9. or.

¹⁷⁸ Horrela azaltzen du CABRERA CABRERA, PEDRO JOSEk eta RÍOS MARTÍN, JULIÁN CARLOSek, *op. cit.*, 52. or.: *“¿cómo se puede lograr “el control adecuado” que demanda el régimen de vida del FIES? Este control, como cualquier otro, exige “un especial seguimiento”, y éste tiene que consistir necesariamente en una mayor vigilancia que afectará, al menos, a la situación regimiental. Ello supondrá, una limitación, menoscabo o derogación pura y simple de derechos penitenciarios plasmados legal o reglamentariamente.”*

¹⁷⁹ MPAA 58/1999, urtarrilaren 20koa, 2. OJ.

¹⁸⁰ EE 100.2 art.: *“No obstante, con el fin de hacer el sistema más flexible, el Equipo Técnico podrá proponer a la Junta de Tratamiento que, respecto de cada penado, se adopte un modelo de ejecución en el que puedan combinarse aspectos característicos de cada uno de los*

konbinatzea, beti ere neurri horiek oinarrituak baldin badaude tratamenduzko programa espezifiko batean. Beraz, gure iritziz fitxategiak ez dira beharrezkoa, zeren eta badaude legalki ezarritako beste erregimen batzuk ezaugarri konplexuak eta arriskugarritasun maila altua duten presoen kontrola burutzeko. Hau da, fitxategien helburua betetzeko bidean, ordenamendu juridikoak beste hainbat bide eskaintzen ditu, zeintzuek babes legal handiagoa duten¹⁸¹.

Hortaz, uler daiteke fitxategien aplikazioak askatasun eskubidea urratzen duela (EK 17.1. art.¹⁸²) norbanakoaren *status libertatis*aren aldakuntza bat dakarrelarik. Kartzelaratua izanagatik ezarri zaion askatasun gabetzeaz gain, fitxategien aplikazioaren bidez jarraipen zorrotzagoa ezarriko baitzaio presoari baliabide elektronikoa (adb. kamerak edo audio grabaketak) zein pertsonalak (adb. presondegiko funtzionarioak) erabilia¹⁸³. Presoaren egunerokoan aparte, JBPFe senide zein abokatuengan eragin nabarmena izango dute; espetxe-administrazioak kontrol handiagoa ezarriko baitu norbanako hauek espetxeratuarekin dituzten elkarrekintzen gain¹⁸⁴. Argi geratu da fitxategiek EKaren 17. artikuluekin nabarmenki talka egiten dutenez, berme juridiko-prozesal guztiak aplikatu beharko liratekeela figura honen kontrolerako, horien artean kontrol judiziala ere indartu beharko litzatekeelarik¹⁸⁵.

mencionados grados, siempre y cuando dicha medida se fundamente en un programa específico de tratamiento que de otra forma no pueda ser ejecutado. Esta medida excepcional necesitará de la ulterior aprobación del Juez de Vigilancia correspondiente, sin perjuicio de su inmediata ejecutividad.”

¹⁸¹ Honela argudiatzen du, GONZÁLEZ COLLANTES, TÀLIAK, *op. cit.*, 9. or.

¹⁸² EK 17.1. art.: “Edozein pertsonak askatasun eta seguritate eskubidea du. Inori ez zaio askatasunik galaraziko, artikulua hontan agintzen dena betetzen ez baldin bada eta beste jazoeretan legeak adierazten duen eran.”

¹⁸³ RODRÍGUEZ YAGÜE, ANA CRISTINA, *op. cit.*, 11. or.: “También se ha señalado que su aplicación vulnera el art. 17 de la CE, pues supone una modificación del *status libertatis* de la persona privada de libertad en tanto se concreta en un mayor seguimiento realizado a través de medios de control (...)”

¹⁸⁴ Horrela azaleratzen zuen ORTEGA, ELENAK (Madres contra la Represión elkarteko kidea eta Alfonso Fernándezen (Alfon) amak), “Elena, madre de Alfon: “El FIES es un invento para minar y derrumbar al preso, es una tortura””, *Ahora Getafe*, 2016ko urtarrilaren 11a, eskuragarri: <https://ahoragetafe.es/elena-madre-alfon-fies-invento-minar-derrumbar-al-presos-una-tortura/> (Azken bisita: 2019.01.31): “El FIES es un invento para minar y derrumbar al preso, para anularle como persona y someterle, es una tortura. Supone un gran desgaste y hace muy difícil el poder mantener la calma y la serenidad. Consiguen que el preso se sienta solo y aislado, que no reciba información ni comunicación del exterior, que se sienta solo y desamparado. Es cárcel dentro de la cárcel, y a los familiares y amigos nos hacen sentirnos impotentes también.”

¹⁸⁵ CABRERA CABRERA, PEDRO JOSE eta RÍOS MARTÍN, JULIÁN CARLOS, *op. cit.*, 51 or.

6. ONDORIOAK

6.1. Fitxategien kontzeptu orokorrari buruz

1.- JBPFak espetxe-administrazioaren esku dagoen batu basea da, arriskugarritasun potentzial altuko presoeri buruzko informazio biltzea helburu duena. Espetxearen eta gainerako presoen segurtasunaren izenean, presoari kontrol eta jarraipen neurri zorrotzak ezartzen zaizkio datu bilketaren aitzakipean. Baina, herritarrok errealitate hau pairatzen duten preso kopuruaren jakitun izan ezin garela dirudi, behin ta berriz fitxategiak ezkutuan mantentzen ahalegintzen direlarik.

2.- 12/2011 Instrukzioak JBPFen izaera argitasunez zehaztu du, helburua fitxategiei eginiko kritika nagusiak ekiditea delarik. Horretarako, arau honek izaera administratiboa aitortzen die fitxategiei, kalifikazioan eraginik ez dutela dio eta erregelamenduen kontrako bizi sistemarik sortzen ez dutela. Bestalde, ulertu behar dugu segurtasuna dela fitxategien ardatz nagusia. Figura honen izatea justifikatzen du, neurri guztiak egikaritzeko arrazoia da eta babes publikoa lortzeko tresna.

6.2. Fitxategiek biltzen duten edukiari buruz

3.- Aztertu dugunez, fitxategien bidez bildu daitezkeen datuak eta baliatu daitezkeen iturriak mugagabeak dira. Hau da 12/2011 Instrukzioak "beste" hitza erabiltzen duenean edonondik datuak eskuratu ahal izateko atea irekitzen du.

4.- Neurrien aplikazioa presoaren arriskugarritasunak baldintzatuko du, baina argi geratu denez talde terrorista edo delinkuentzia antolatuarekin harremana duten presoeri era automatikoan neurri gogorragoak ezartzen zaizkie. Preso hauei ezargarri zaizkien neurriak gehiegizkoak direla frogatu dugu; preso gainerako kideengatik isolatzen dute, kontrol zorrotza izango du beregain, komunikazioak mugatzen zaizkio eta gabeko atsedinari trabak gogorak jarri. Ez dira bateragarriak bi orduroko gaueko erroldak eta presoaren lo orduen errespetua.

6.3. Sorreratik gaur egun arte araudian izan duen bilakaerari buruz

5.- Fitxategien sorreraren bultzatzaile nagusia 1985-1994 urteetan bizi zen egoera liskartsua izan zen. Gaur egun presondegietan guztik ez-ohikoa dira egoera horiek, beraz fitxategiak indarrean jarraitzea ezin da oinarritu arrazoiketa honetan errealitatearekin bat ez baitator.

6.- Ikusi dugunez, sorreran zirkularren bidez arautu ziren fitxategiak, horren ostean Instrukzioetara salto egin zen eta azkenik erregelamendura. Geroz eta maila altuagoko arauen bidez xedatzea izan da legegilearen helburua, fitxategiei babes handiagoa emateko. Hala ere, fitxategien historia osoan zehar epaile ugari bere legezotasuna zalantzan jarri dute, doktrinak ere zorrozki kritikatu duelarik.

7.- Fitxategietan barneratuak dauden preso taldeak gehitzen eta zehazten joan dira denborak aurrera egin ahala. Azken boladan, terrorismo islamiarrarekin harremana izan ditzaketen presoeri nabarmenki zabaldu da.

6.4. JBPFak ezkututzen dituen argi-ilunen inguruan

8.- Frogatu dugunez, JBPFek presondegiko legezkotasun printzipioaren kontra arautuak dute. Fitxategiek presoaren oinarrizko eskubide eta askatasunak mugatzen dituzte lege mailakoak ez diren arauen bidez. Legegileak ezartzen du lege zein lege organikoz arautu behar direla eskubideak mugatzen dituzten xedapenak, baina fitxategiak soilik zirkular, Instrukzio zein erregelamendu bidez arautu izan dira.

9.- Lotura bereziko harremanaren babespean, legegileak administrazioari erregelamendu-ahalmena salbuespenez onartu baldin badio ere, azaleratu dugunez epaitegiek salbuespenaren interpretazio murriztailea burutzeko joera adierazi dute. Baina, Fitxategiek araudiak ahalmen araugile horren mugak nabarmenki gainditzen dituztela azertu dugu. Fitxategien helburua ez baita espetxearen administrazio eta barne gestioa, presoaren kontrola baizik.

10.- Ikusi dugunez, JBPFak ez dira ikuskapen judizialaren bidez aplikatzen, Administrazioaren eskutan dagoen erabakia da. Kontrako zentzuan doazen Europako gomendioei entzungor egiten die Espainiak. Fitxategiek presoaren bizimoduan duen eragin nabarmena dela eta, baimen judiziala beharrezkoa izan beharko litzatekela uste dugu. Horrez gain, fitxategien aplikazioa indibidualizazio zientifikoaren printzipioari kontrajartzen zaiola agerian geratu da. Presoa, buruturiko delituagatik edo dituen harremanengatik barneratua izango da fitxategietan eta arrazoi berdinagatik automatikoki ezarriko zaizkio neurriak, ez bere ezaugarri pertsonalak kontuan harturik. Hala ere, araudiak hainbat bide ezberdin onartzen ditu fitxategien aplikazioa aurkaratzeko oinarrizko eskubideen urrapenean oinarriturik, baina zaila izaten da horiek frogatzea.

11.- Kartzela presoaren berreziketarako zentroa dela sinestarazi nahi digute, baina JBPFak bezalako erregimenak helburu honekin bateraezinak direla uste dugu. Presoaren komunikazio, hezkuntzarako, osasunerako zein intimitaterako eskubideak hutsaltzen ditu fitxategiak, barruan dagoena kaltetzeaz gain kanpoan dauden lagun eta senideak ere zigortzen dituelarik.

12.- Hausnarketa honetatik lorturiko ondorio nagusia da, JBPFek ezkutuko erregimen berri bat sorrarazten dutela. Lehen graduaren gogortze bortitza eragiten du, araudiaren babes nahikorik ez duena eta presoaren oinarrizko eskubideen urraketa etengabea sortzen duena, espetxe-administrazioaren borondatearen menpe presoa babesgabezia egoera batean utzirik.

Eztabaida doktrinal eta jurisprudenzialen gaintik, fitxategien erregimenaren kalteak jasaten dituen barrote hotzen beste aldean dago. Lau pareta horiek presoa isilarazten eta ikusezin bihurtzen dute. Horregatik, gure herriko kaleetan gaudenoi dagokigu fitxategien krudeltasunaren jakitun izatea eta ahal dugun heinean, eskubideen urraketa honi kontra egiteko aurrera pausu bat ematea.

7. ITURRIAK

7.1. Bibliografia

- ALONSO PÉREZ, FRANCISCO, “Intervenciones de las comunicaciones en el ámbito penitenciario”, *Diario La Ley*, 20163 zk., 2011
- ANDRÉS LASO, ANTONIO, *La Ley Orgánica 1/1979, de 26 de septiembre, General Penitenciaria: orígenes, evolución y futuro*, Ministerio del Interior, Madril, 2016
- ARRIBAS LÓPEZ, EUGENIO, “«Celda 211», la legislación penitenciaria y los funcionarios de prisiones”, *Diario La Ley*, 20896 zk., 2009
- ARRIBAS LÓPEZ, EUGENIO, “Fichero de internos de especial seguimiento (FIES): Incidencia de la reforma del reglamento penitenciario y de la normativa administrativa interna posterior”, *Diario La Ley*, 8291 zk., 2012
- ARRIBAS LÓPEZ, EUGENIO, “Ficheros de Internos de Especial Seguimiento (FIES) y régimen cerrado”, *La Ley Penal*, 72 zk., 2010
- ARRIBAS LÓPEZ, EUGENIO, “La reforma de Reglamento Penitenciario en el laberinto”, *Diario La Ley*, 14831 zk., 2010
- ARRIBAS LÓPEZ, EUGENIO, “La sentencia del Tribunal Supremo de 17 de marzo de 2009 y las instrucciones y órdenes de servicio de la Administración Penitenciaria”, *Diario La Ley*, 7268 zk., 2009
- BRANDARIZ GARCÍA, JOSÉ ÁNGEL, “Notas sobre el régimen penitenciario para penados considerados extremadamente peligrosos: Departamentos especiales y F.I.E.S.-1 (CD)”, *Estudios Penales y Criminológicos*, XXIII lib., 135 zk., 2001-2002, 8-58 or.
- CABRERA CABRERA, PEDRO JOSE eta RÍOS MARTÍN, JULIÁN CARLOS, *Mirando el abismo: el régimen cerrado*, Universidad Pontificia Comillas, Madril, 2002
- CANO PAÑOS, MIGUEL ANGEL, “El régimen penitenciario de los terroristas de ETA ¿Mantenimiento, supresión o modificación?”, *Diario La Ley*, 7821 zk., 2012
- CERVELLÓ DONDERIS, VICENTA, “Revisión de legalidad penitenciaria en la regulación del régimen cerrado y los FIES”, *La Ley Penal*, 72 zk., 2010
- CERVELLÓ DONDERIS, VICENTA, *Derecho penitenciario*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2016
- DEL PUERTO SOLAR CALVO, MARÍA, “El acceso al expediente penitenciario. El necesario tránsito de la forma al fondo; A propósito de la nueva normativa en protección de datos”, *Diario La Ley*, 9160 zk., 2018
- ELÍAS ORTEGA, ANGEL, “Suspensión de la aplicación del régimen FIES; Comentario al auto TC (Sala 2.ª) de 15 septiembre de 1994”, *Diario La Ley*, 12370 zk., 2001
- FERNÁNDEZ BERMEJO, DANIEL, *Individualización científica y tratamiento en prisión*, Ministerio de Interior, Madril, 2014

- FERNÁNDEZ CABRERA, MARTA, “La política de dispersión de presos de ETA a la luz de la jurisprudencia del Tribunal Europeo de Derechos Humanos”, *Cuadernos de política criminal*, 125 zk., 2018
- GIMBERNAT DÍAZ, EVA, “El derecho penitenciario del enemigo aplicable a los presos por delitos de terrorismo”, AAAA (Zuzend. CUERDA RIEZU, ANTONIO RAFAEL), *El derecho penal ante el fin de ETA*, Tecnos, Madril, 2012
- GUTÍERREZ GUTÍERREZ, IGNACIO, *Comentarios a la Constitución Española*, VIII. lib., Edersa, Madril, 2006
- LEGANÉS GÓMEZ, SANTIAGO, “Los terroristas islamistas en las prisiones españolas”, *Diario La Ley*, 3681 zk., 2017
- LÓPEZ BENÍTEZ, MARIANO, *Naturaleza y presupuestos constitucionales de las relaciones de sujeción especial*, Civitas, Madril, 1994
- LÓPEZ RAMÓN, FERNANDO eta VILLAR ROJAS, FRANCISCO JOSÉ, *El alcance de la invalidez de la actuación administrativa*, Instituto Nacional de Administración Pública (INAP), Madril, 2017
- MAPELLI CAFFARENA, BORJA, *Las consecuencias jurídicas del delito*, Civitas, Iruña, 2005.
- NISTAL MARTÍNEZ, JAVIER, “La libertad de las comunicaciones con el abogado defensor como garantía del derecho a la defensa”, *Diario La Ley*, 2151 zk., 2010
- RÍOS CORBACHO, JOSÉ MANUELEk, “El primer grado penitenciario y los internos FIES”, *Revista General de Derecho Penal*, 18 zk., 2012
- RÍOS MARTÍN, JULIÁN CARLOS, “Los Ficheros de Internos de Especial Seguimiento (FIES). Análisis de la normativa reguladora, fundamentos de su ilegalidad y exclusión del ordenamiento jurídico”, *Cuadernos de Derecho Penitenciario*, 3 zk., 1998
- RODRÍGUEZ YAGÜE, ANA CRISTINA, “El modelo penitenciario español frente al terrorismo”, *Diario La Ley*, 19959 zk., 2009
- RODRÍGUEZ YAGÜE, CRISTINA, “El derecho a la educación en el sistema penitenciario español”, *Diario La Ley*, 8290 zk., 2012
- SOLAR CALVO, PUERTO, “El acceso al expediente penitenciario. El necesario tránsito de la forma al fondo. A propósito de la nueva normativa en protección de datos”, *Diario La Ley*, 9265 zk., 2018

7.2. Jurisprudentzia

a) Giza Eskubideen Europako Auzitegia

- GEEAE 42750/09, Del Río Prada vs. Espainia, 2013ko urriaren 21koa
- GEEAE 15943/90, Domenichini vs. Italia, 1996ko azaroaren 15ekoa
- GEEAE 15211/89, Calogero Diana vs. Italia, 1996ko azaroaren 15ekoa
- GEEAE 5947/72, Silver eta beste batzuk vs. Erresuma Batua, 1983ko martxoaren 25ekoa

b) Konstituzio Auzitegia

KAE 188/2013 azaroaren 4koa
KAE 171/2013, urriaren 7koa
KAE 230/2012, abenduaren 10ekoa
KAE 71/2004, urriaren 29koa
KAE 71/2004, maiatzaren 19koa
KAE 167/2003, irailaren 29koa
KAE 140/2002, ekainaren 3koa
KAE 175/2000, uztailaren 28koa
KAE 121/1999, uztailaren 22koa
KAE 200/1997, azaroaren 24koa
KAE 175/1997, urriaren 27koa
KAE 128/1997, uztailak 14koa
KAE 170/1996, azaroaren 29koa
KAE 170/1996, urriaren 29koa
KAE 128/1996, uztailaren 9koa
KAA 241/1994, irailaren 15ekoa
KAE 183/1994, uztailaren 20koa
KAE 57/1994, otsailaren 28koa
KAE 148/1993, apirilaren 29koa
KAE 54/1992, apirilaren 8koa
KAE 214/1991, azaroaren 11koa
KAE 97/1991, maiatzaren 9koa
KAE 120/1990, ekainaren 27koa
KAE 3/1988, urtarrilak 21ekoa
KAE 22/1984, otsailaren 17koa
KAE 60/1982, urriaren 11koa

d) Auzitegi Gorena

AGE 2865/2015, ekainaren 29koa
AGE 2555/2009, martxoaren 17koa
AGE 3701/1981, apirilaren 11koa

e) Auzitegi Nazionala

ANE 2023/2018ak, ekainak 1ekoa
ANE 1415/2004, martxoaren 1ekoa

f) Justizia Auzitegi Nagusiak

MJANE 10526/2013, ekainaren 24koa

g) Probintzia Auzitegiak

ZPAA 389/2018, ekainaren 8koa
MPAA 39/2002, urtarrilaren 11koa
MPAA 271/2001, otsailaren 9koa
MPAA 170/2001, otsailaren 2koa
MPAA 58/1999, urtarrilaren 20koa
MPAA 571/1997, maiatzaren 28koa

h) Espetxe Zaintzako Epaitegiak

Sevillako Espetxe Zaintzako Epaitegiaren Autoa 395/2005, urriaren 3koa

i) Beste batzuk

GGOKE 196/2016, uztailaren 22koa

7.3. Araudia

a) Europako araudia

Giza Eskubideen Europako Hitzarmena, 1950eko azaroaren 4koa

2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamendu eta datu hauen zirkulazio librearen ingurukoa pertsona fisikoen babesari buruzkoa

Europar Kontseiluko Ministro Batzordeak estatu kideei eginiko delitugile arriskutsuen inguruko (2014)3 Gomendioan, 2014ko otsailaren 7koa

b) Konstituzioa

Espainiako Konstituzioa, 1978koa

d) Lege organikoak eta legeak

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa (Datuen Babeserako Lege Organikoa)

10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa (Zigor Kodea)

1/1979 Lege Organikoa, irailaren 26koa (Espetxe Lege Organiko Orokorra)

19/2013 Legea, abenduaren 9koa (Gardentasun, Informazio publikoaren Sarbide eta Gobernu Onaren Legea)

29/1998 Legea, uztailaren 13koa (Administrazioarekiko auzi-jurisdikzioaren Legea)

30/1992 Legea, azaroaren 26koa (Administrazio Publikoen Erregimen Juridiko eta Administrazio Ohiko Prozeduraren Legea)

Prozedura Kriminalaren Legea, 1882ko irailaren 14ko Errege Dekretuaren bidez aldarrikatu dena

e) Errege Dekretuak

419/2011 Errege Dekretua, martxoaren 25koa, Espetxe Erregelamenduaren aldatetei buruzkoa

190/1996 Errege Dekretua, otsailak 9koa, Espetxe Erregelamenduari buruzkoa

f) Instrukzioak eta zirkularrak

EIZN 17/2011 Instrukzioa, azaroaren 8koa

EIZN 12/2011 Instrukzioa, uztailaren 29ko

EIZN 6/2006 Instrukzioa otsailaren 6koa

EIZN 21/1996 Instrukzioa, abenduaren 16koa

EIINren, uztailaren 11ko 8/2014 Instrukzio

2015eko otsailaren 10eko EIINren Berrikuspena, uztailaren 11ko 8/2014 Instrukzio eta urriaren 1eko 4/2014 Zerbitzu Aginduari buruzkoa

EIZNren 1995ko otsailaren 28ko Zirkularra

EIZNren 1991ko urriaren 2ko Zirkularra

EIZNren 1991ko abuztuaren 2ko Zirkularra

EIZNren 1991ko maiatzaren 28ko Zirkularra

EIZNren 1991ko martxoaren 6ko Zirkularra

EIZNren 1989ko azaroaren 13ko Zirkularra

7.4. Beste iturri batzuk

ALBIN, DANILOK, "Los tres jóvenes de Altsasu irán a juicio tras casi año y medio de prisión preventiva", *Público*, 2017ko azaroaren 21a, eskuragarri: <https://www.publico.es/espana/tres-jovenes-altsasu-iran-juicio-ano-medio-prision-preventiva.html> (Azken bisita: 2019.02.03)

EUSKAL HERRIA IRRATIak, "Altsasuko zazpi gazteak Segimendu Bereziko Unitatetik atera dituzte", *Euskal Herria Irratia*, 2018ko ekainaren 11, eskuragarri: <https://euskalerrriarratia.eus/nafarroa/1528715382662-altsasuko-zazpi-gazteak-segimendu-bereziko-unitatetik-atera-dituzte> (Azken bisita: 2019.02.12)

GONZÁLEZ COLLANTES, TÀLIA, "Los ficheros de internos de especial seguimiento: un ejemplo de la penetración de la cultura de emergencia y la excepcionalidad en el ámbito penitenciario", *I Congreso Internacional de Seguridad, Justicia y Sistema Penal*, Valentzia 2014, eskuragarri: <https://congresos.adeituv.es/seguridad/ponencia.es.html?mes=1&ordpon=7> (Azken bisita: 2018.12.06)

LÓPEZ-FONSECA, ÓSCAR, "Interior incluye a los 15 presos de las black en un fichero de reclusos de "especial seguimiento"", *El País*, 2019ko urtarrilaren 16a, eskuragarri: https://elpais.com/economia/2019/01/15/actualidad/1547551541_569281.html (Azken bisita: 2019.02.02)

NAIZ BIDEOAK, "ALTSASU: Cronología de un despropósito", *Naiz Bideoak kanala*, eskuragarri: https://www.youtube.com/watch?v=bhrRQ_2UQXI (Azken bisita: 2019.01.28)

ORTEGA, ELENA, "Elena, madre de Alfon: "El FIES es un invento para minar y derrumbar al preso, es una tortura"", *Ahora Getafe*, 2016ko urtarrilaren 11a,

eskuragarri: <https://ahoragetafe.es/elena-madre-alfon-fies-invento-minar-derrumbar-al-presos-una-tortura/> (Azken bisita: 2019.01.31)

SÁNCHEZ ÁLVAREZ, PILAR, "Régimen FIES: incidencia de la STS de 11.03.2009", *La revistilla*, 2009, eskuragarri: http://www.larevistilla.org/?attachment_id=278 (Azken bisita: 2019.01.02)